| | | | |
|---|---|---|---|
| **KONTRATU MOTA:** | **ZERBITZUAK** | | |
| **PROZEDURA:** | **IREKIA** | | |
| **ARAU HARMONIZATUPEKO KONTRATUA** | | **BAI** ☐ | **EZ** ☒ |
| **ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA** | | **BAI** ☒ | **EZ** ☐ |
| **LIZITAZIO ELEKTRONIKOA** | | | |

**Tramitazioa** ☒ **Arrunta** ☐ **Presazkoa**

**Espedientearen kodea:**
**GPS 2026/01**

# ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

## EZAUGARRIEN TAULA

| **1.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| Entitate kontratatzailea | Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioa (GPS Fundazioa) |
| Kontratazio organoa | GPS fundazioaren Patronatua |
| Helbidea | Ibaiondo poligonoa, 27, 1., 1-5 bulegoa.<br>20120 HERNANI |
| Helbide elektronikoa | lzaldua@gipuzkoa.eus (Gerentea) |

| **2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:** | www.contratacion.euskadi.eus |
|---|---|

| **3.- KONTRATUAREN OBJEKTUA** |
|---|
| Aizkorri-Aratz natura-parkeko ingurumen hezkuntzako zerbitzuak (arreta eta dinamizazioa) Arantzazuko (Oñatiko) parketxean. |
| CPV kodea(k):<br>80540000-1 Ingurumen arloko prestakuntza zerbitzuak |
| Sortaka lizitatzeko aukera BAI ☐ EZ ☒<br>Kontratua ez da sortatan banatzen; izan ere, prestazioak modu independentean gauzatzeak, kontratuaren xedearen izaerak eskatzen duen homogeneotasuna murriztuko luke, eta kontratista bakar batekin bermatuko litzateke kontratua modu koordinatuan betetzen dela (SPKL-ren 99. artikulua). |

| **4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZa BARNE)** | | |
|---|---|---|
| Prezioa zehazteko sistema | Prezio unitarioak | ☐ |
| | Kontratuaren parte bat oroharreko prezioan | ☐ |
| | Kontratu osoa oroharreko prezioan | ☒ |

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

| | |
|---|---|
| Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZarekin ) | HIRUROGEITA SEI MILA euro (66.000,00 €) urteko |
| BEZaren zenbatekoa (%21) | Arreta zerbitzuan soilik |
| Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren banakapena | 66.000 €: 28.050 € arretarako (23.181,82 €+ 4.868,18 € [% 21eko BEZa]) + 37.950 € dinamizazio (BEZik gabeko kontzeptua, 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoaren 20.1.14.b) artikulua). |

**5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa SARTU GABE)**

Zenbatekoa: 244.527,28 € (BEZa gabe)
Arreta 112.200,00 € (92.727,28 € + 19.472,72 € [21% BEZa]) + dinamizazioa 151.800 €

| | Lizitazio aurrekontua (BEZarekin) | Luzapenak (urtebeteko 3 luzapen posible) | Kontratu aldaketak | KONTRATUAEN BALIO GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Zenbatekoa: | 66.000 € | 198.000,00 | -- | **264.000,00€** |

| **6.- FINANTZAKETA** | Portzentajea |
|---|---|
| GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA | 100% |

**7.- URTEKOAK**

| EKITALDIA | KONTU SAILAK | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 2026 | GPS Fundazioaran ohiko aurrekontua | 44.000,00 € |
| 2027 | GPS Fundazioaran ohiko aurrekontua | 22.000,00 € |

**8.- BETETZE EPEA**

Epe osoa: Urtebete kontratua sinatzen den egunetik hasita, beste hiru urtez luzatu ahal izango da.

Epe partzialak BAI ☐ EZ ☒

**9.- LUZAPENA**

BAI ☒ Luzapenaren epea: Urtebeteko hiru luzapen posible.

EZ ☐

| 10.- ORDAINTZEKO ERA |
|---|
| Kontratistak bere zerbitzuak hilero fakturatuko ditu (hilabete naturalak).<br>GPS fundazioak ordainketa egingo du benetan emandako zerbitzuagatik banku transferentziaren bidez, esleipenak adierazten duen kontu korrontera, faktura lehen aipatutako epean aurkeztu ondoren eta GPS fundazioak faktura onartzen duen datatik kontatzen hasita 30 egunen barruan |

| 11.- BETETZE LEKUA |
|---|
| Aizkorri-Aratz natura-parkeko Arantzazuko (Oñatiko) parketxean. |

| 12.- ALDAERAK ONARTZEA |
|---|
| BAI [ ] Baldintzak, modalitateak eta alderdiak<br>EZ [X] |

| 13.- PREZIO BERRIKUSPENA |
|---|
| BAI [ ] Berrikuspen formulak:<br>EZ [X] |

**14.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA**

**1) BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK (SPKLren 65. artikulua)**

Bidezkoa da BAI [ ] EZ [X]

2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Irizpidea: itxitako azken hiru urteetako negozio zifren artean altuena den urteko negozio zifra.

Gutxieneko betebeharra: itxitako azken 3 urteetako negozio zifren artean altuena den urteko negozio zifrak, gutxienez, **90.000 euro** edo gehiago izan behar du.

Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresariek legezko kontabilitate liburuak aurkez ditzakete, ordezko egiaztapen gisa.

3) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

a) Kaudimen teknikoa egiaztatutzat joko da lizitatzaileak gutxienez honako giza baliabide hauek badauzka, zerbitzua ematera bideratuko dituenak kontratuak irauten duen bitartean:

- Unibertsitateko goi mailako ikasketak egin dituzten **hiru (3) pertsona** honako arloetako bat edo batzuetan: Artearen Historia, Biologia, Euskal Ikasketak, Fisika, Geografia eta Lurralde Antolakuntza, Geologia, Gizarte Antropologia, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Haur Hezkuntza, Historia, Ingurumen Ingeniaritza, Ingurumen Zientziak, Kultura Ondarearen Kontserbazioa eta Zaharberritzea, Lehen Hezkuntza, Pedagogia, Psikologia edo antzeko sailen batetakoak).

  Horietako bat lanen arduraduna izango da eta GPS fundazioarekin solaskide funtzioak izango ditu.

- **Pertsona bat (1)** goi mailako formakuntza zikloa (Ingurumen-Hezkuntza eta -Kontrola, Baso Kudeaketa eta Natura Ingurunea, Zuzendaritzarako Laguntza, Administrari Laguntzailea edo antzeko sailen batetakoak) edo, gutxienez, erdi mailako formakuntza zikloa (Natura Inguruneko eta Aisialdiko Gidari-Lanak, Zuzendaritzako Idazkaritza, Administrari Laguntzailea edo antzeko sailen batetakoak) edo parekoa burutu duena.

b) Publikoaren aurrean lan egiten duten langileek EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izan beharko dute, bisitariekin bi hizkuntzetan harremanetan aritu ahal izateko. Zehazki, parketxeetan jendeari arreta egiteaz arduratuko diren pertsonak, dinamizazio lanak egingo dituztenak (hezitzaileak), eta Parketxe Sarearekin solaskide izango direnak, euskaldunak izango dira. Zereginak ahozkoak zein idatzizkoak egin beharko dituztenez gero, maila egokia izan beharko dute bietan. Hori egiaztatzeko, gutxienez euskararen C1 ziurtagiria edo baliokidea aurkeztu beharko dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) arabera.

**4) SAILKAPENA:**

Lizitatzaileak sailkapena ere erabili ahal izango du bere kaudimena egiaztatzeko:

BAI [ ] EZ [X]

**15.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA**

BAI [X] EZ [ ]

Erantzuna baiezkoa balitz

- Enpresa lizitatzaileak konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldi osoan ezaugarrien taulako (gutxieneko talde teknikoa) 14.3 atalean xedatutakoaren arabera izendatutako talde teknikoari eusteko, eta ezingo da aldaketarik egin, behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik. Aldaketa horiek egin aurretik, erakunde kontratatzailearen baimena beharko da.

- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, administrazio-klausula zehatzen agiriko IV. eranskinean jasotako aitorpena aurkeztu beharko da BAT artxibo elektronikoan. **Artxibo horretan ezin izango dira identifikatu langile horiek, eta langile horien identifikazioa VIII. eranskinean egin beharko da (HIRU artxibo elektronikoa).**

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

- SPKLren 150.2 artikuluan adierazitako ondorioetarako, kontratuaren adjudikaziodun izateko proposatzen den erakundeak kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, esleipenaren aurreko fasean.

**16.- DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA**

BAI [X] EZ [ ]

Erantzuna baiezkoa balitz, adierazi enkarguaren xedea:
Esleipendunak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, aterpetxearen erabiltzaileen datu pertsonalen (identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak) tratamendua egingo du.

**17.- AZPIKONTRATAZIOA**

Derrigorrezkoa da EKAB-n adieraztea:

| | |
|---|---|
| a) Azpikontratatzea aurreikusita dagoen kontratu zatia, betiere haren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo profila azalduta. | BAI [ ] EZ [X] |
| b) Zerbitzariak edo haiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko aurreikuspena, betiere haren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo profila azalduta (*datu pertsonalak tratatzeko enkargua balitz*). | BAI [ ] E/A [X] |
| Azpikontratisten aldeko zuzeneko ordainketak | BAI [ ] EZ [X] |
| Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak | BAI [X] EZ [ ] |

Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoen deskribapena:

Parketxeari arreta emateko eta hura dinamizatzeko ohiko lanak.

**18.- BERMEAK**

| | | |
|---|---|---|
| BEHIN-BEHINEKOA | BAI [ ]<br>EZ [X] | Zenbatekoa: ……….………………………....€<br>[lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZik gabe)] |
| BEHIN BETIKOA | BAI [X] | [X] (Oroharreko prezioa)<br>Esleipenaren zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe) |
| | | [ ] (Prezio unitarioak)<br>Zenbatekoa: ….….………………………..…..€<br>[lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 5 (BEZik gabe)] |
| | EZ [ ] | |

| | | |
|---|---|---|
| OSAGARRIA | BAI [ ]<br>EZ [X] | Zenbatekoa:………….……………………..€ |
| BERME EPEA | 2 hilabete | |

**19.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK**

**1) BALIO JUDIZIO BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK**

BAI [X] EZ [ ]

| Irizdeak | Puntuazioa |
|---|---|
| **1) BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK**<br><br>Proposamenaren edukia honelako parametroak kontuan hartuta baloratuko da: jendeari arreta zerbitzua (20 puntu), dinamizazio programa (29 puntu).<br><br>Puntuaketa emango da faktore hauen arabera: xehetasun maila, azalpenaren zehaztasuna eta argitasuna, proposamenaren zehaztasun teknikoa eta proposatutako tresnen kalitatea eta egokitasuna. | |
| - ***Jendearentzako arreta zerbitzua:***<br>* Arreta lanen antolaketa eta garapena, kudeaketa, baliabideen zaintza, ekipamenduak eta materialak (3 puntu).<br>* Jendeari arreta zerbitzua emateko gutxieneko egutegi eta ordutegia hobetzea (6 puntu)<br>* Parketxeko bisitaldien antolaketa. Parketxeko interpretazio edukien informazioa eta zehaztasunak emateko metodologia (11 puntu). | **20 PUNTU** |
| - ***Dinamizazio programa:***<br>* Parke naturalaren aktiboekin koherentzia izatea (geologia, fauna, landaretza, kultura ondarea, paisai kulturalak….) (3 puntu).<br><br>* Gune naturaletan ingurumen arloko hezkuntza jarduerak (24 puntu)<br>- Jarduera proposamena: irteerak, txangoak, tailerrak… (kopurua, aniztasuna, balizko hartzaileekiko egokitasuna) (5 puntu).<br>- Jardueren metodologia (eginkizunen azalpen xehatua, helburuak, erabilitako baliabideak, gaiarekiko egokitasuna) (10 puntu).<br>- Material didaktiko osagarria egitea (diseinua, helburuekiko, metodologiarekiko eta hartzaileekiko egokitasuna) (7 puntu).<br>- Programa garatzeko ekipoen antolaketa eta egutegia zehaztea (2 puntu).<br><br>* Taldeekin bisitaldiak egiteko aurretiko diseinua eta antolaketa (2 puntu)<br><br>**Oharra**: Dinamizazio Programaren azpiatal honetan gutxienez 15 puntu lortu behar dira. | **29 PUNTU** |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT edo BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa sartzen dutenak (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa), baldin eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta eta proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, mahaiak uste badu organo teknikoen nahitaezko inpartzialtasunari eta objektibotasunari eta tratu-berdintasunaren printzipioari eragiten dien kutsadura gerta daitekeela.**

**ARTXIBOETAN IRIZPIDE AUTOMATIKOEI BURUZKO DATURIK, INFORMAZIORIK EDO DOKUMENTAZIORIK EZ SARTZEA, AURRETIKO BETEKIZUNEI ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ.**

---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**2) FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOSTEKO IRIZPIDEAK**

| Irizpidea | | Haztapena |
|---|---|---|
| **1.-** | **Prezioa** | 21 |
| **2.-** | **Lan taldearen esperientzia** | 20 |
| **3.-** | **Ingurumen irizpideak** | 5 |
| **4.-** | **Berdintasun irizpideak** | 5 |

**<u>Eskaintza ekonomikoa (21 puntu)</u>**

P= 21*Gutxieneko eskaintza/N eskaintza
Azalpena:
P=Enpresa lizitatzaileak lortutako puntuazioa
Gutxieneko eskaintza= eskaintzen artean, kopuru baxuenekoa
N eskaintza= Baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa

**<u>Lanen ardura duten langileen esperientzia (20 puntu)</u>**

Esperientzia honela baloratuko da:
Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan (edo antzekoetan) hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia: 8 puntu arte.

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan (edo antzekoetan) hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia: 12 puntu arte.

Esperientzia honela baloratuko da: 0,50 puntu, gutxienez 100 ordu lan egin dituen langile eta lan-urte bakoitzeko. Pertsona bakoitzeko gehieneko puntuazioa 2 puntu izango da arretarekin lotutako esperientziarako eta 3 puntu dinamizazioarekin lotutako esperientziarako.

**<u>Ingurumen-irizpideak (5 puntu)</u>**

Zerbitzua gauzatzean hartuko diren ingurumen arloko neurriak adieraziko dira, urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 19. artikuluan aurreikusitakoen artetik. Horren arabera, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatuko dira, eta gehienez 10 puntu emango dira.

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

Bereziki, honako neurri hauek jasotzen dituen konpromesua emtaten badute:

a) Baliabide naturalen kontsumoa minimizatzea, hala nola lehengaiak, erregaiak eta ura (19a) (2,5 puntu)
b) Ahalik eta hondakin gutxien sortzea, eta hondakin horiek berrerabiltzea edo birziklatzea (19b) (2,5 puntu).

**Irizpide sozialak (emakumeen eta gizonen berdintasuna) (5 puntu)**

- 3 puntu emanen dira GPS fundazioarekiko solaskide-funtzioa duen arduraduna emakumea bada.

- 2 puntu emango dira gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan gutxienez 150 orduko prestakuntza egiaztatua duen kontratua gauzatzera atxikitzen den pertsona bakoitzeko, 4 puntu gehienez ere.

Irizpideen baturak ezin izango ditu 5 puntu gainditu

## AURRETIAZKO BETEKIZUNEI ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO ARTXIBOETAN IRIZPIDE AUTOMATIKOEI BURUZKO DATU, INFORMAZIO EDO DOKUMENTAZIORIK EZ SARTZEA.

**Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko**

Hasteko, eskaintza bat ezohikotzat edo neurrigabetzat joko da, baldin eta % 20tik gora txikiagoa bada onartutako eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoa baino, edo lizitatzaile bakarra aurkezten den kasuan %25 txikiagoa ezarritako gehieneko zenbatekoa baino. Adierazpen hori egin aurretik, informazioa eskatu beharko zaie ustez eskaintza horretan parte hartu duten lizitatzaile guztiei, eta aholku teknikoa, dagokion zerbitzuari.

**Irizpide espezifikoak, berdinketak desegiteko**

SPKLaren 147.2. artikuluan jasotakoak.

| 20.- EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK |
|---|
| Ikus agiri honen 38-2. klausula. |

| 21.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK |
|---|
| SPKLn eta agiri honen klausuletan aurreikusitakoez gain, funtsezko betebeharrak izango dira giza baliabideak atxikitzeko betebeharra, ezaugarrien taula honen 15. apartatuan aurreikusia. |

| 22.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK |
|---|
| BAI ☐ EZ ☒<br>Erantzuna baiezkoa balitz: |

| 23.- ZIGORRAK |
|---|
| Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta baldintza-agiri honen 35. klausulan aurreikusitakoak. |

| 24.- ASEGURUAK |
|---|
| Erantzukizun zibileko asegurua, gutxienez 600.000 eurokoa. |

| 25.- LAN HARREMAN JAKIN BATZUETAKO SUBROGAZIOA |
|---|
| BAI ☐ EZ ☒<br>Erantzuna baiezkoa balitz: |

| 26.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA |
|---|
| Ez dagokio |

| 27.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK |
|---|
| BAI ☐ EZ ☒<br>Erantzuna baiezkoa balitz: |

| 28.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA | |
|---|---|
| Tratamenduaren arduraduna: | Fundazioko gerentea |
| Datuak Babesteko Ordezkaria (kontaktu): | https://www.gipuzkoanatura.eus/eu/harremanetarako |
| Informazio gehiago: | |

| 29.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK |
|---|
| Ez dagokio. |

| 30.- KONTRATAZIO MAHAIA |
|---|
| MAHAIBURUA: Luis Mari Zaldua Etxabe, GPS Fundazioko gerentea,<br>BOKALA: Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaileta eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.<br>BOKALA: Nerea Garrido Leunda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria.<br>BOKALA: Mikel Albizu Huegun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria.<br>IDAZKARIA: Iker Latiegui Lasa, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Administrazio Orokorreko erdi teknikaria. |

| 31.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA |
| --- |
| Proposamenak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, lizitazio-iragarkia GPS Fundazioaren kontratatzaile-profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. |

*Baldintza Administratibo Berezien Agiri hau Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatuak onetsi ditu 2026ko martxoaren 25eko akordio bidez.*

**AURKIBIDEA**


**I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK ........ 1**

1.- Kontratuaren objektua ........ 1

2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premiak ........ 1

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ........ 1

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia ........ 1

5.- Kontratuaren prezioa ........ 1

6.- Kontratuaren finantziazioa/urtealdiak ........ 2

7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua ........ 2

8.- Prezio berrikuspena ........ 2

9.- Kontratuaren publizitatea ........ 2

10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan . 3

11.- Kontratuaren araubide juridikoa ........ 3

12.- Errekurtso araubidea ........ 4

**II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA ........ 4**

13.- Espediente mota eta lizitazio modua ........ 4

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak ........ 5

15.- Behin-behineko bermea ........ 5

16.- Proposamenak aurkeztea ........ 5

17.- Lizitatzaileei informazioa ematea ........ 6

18.- Proposamenen edukia ........ 6

19.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: “AURRETIKO BEHARKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA” ........ 7

20.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: “BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” ........ 8

21.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” ........ 8

22.- Aldaerak onartzea ........ 9

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak ........ 9

24.- Kontratazio mahaia ........ 10

25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea ........ 10

25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea ........ 10

25.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (bakarrik BI zenbakiko artxibo elektronikoa dagoenean) ........ 10

25.3.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea ........ 10

25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak ........ 11

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea .. 11

27.- Adjudikazio irizpideak ........ 11

28.- Eskaintzak baloratzea ........ 11

29.- Eskaintzak argitzea ........ 12

30.- Balio nabarmenki baxuegiak dituzten eskaintzak ........ 12

31.- Prozedurako ondorengotza ..... 12
32.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Kontratazio organoak atzera egitea ..... 12
33.- Adjudikazioa ..... 13
33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikatzeko proposamena ..... 13
33.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunak betetzeari buruzko justifikazio dokumentazioa aurkeztea ..... 13
33.3.- Behin betiko bermea ..... 16
33.4.- Adjudikazioa ..... 16
34.- Kontratua formalizatzea ..... 17
**III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA ..... 18**
35.- Kontratuaren arduraduna ..... 18
36.- Kontratistaren ondorengotza ..... 19
37.- Kontratua besteri lagatzea ..... 19
38.- Enpresa kontratistaren egikaritze baldintzak eta betebeharrak ..... 19
38.1.- Baldintza orokorrak ..... 19
38.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ..... 20
38.2.1.- Lan eta gizarte arloko betebeharrak eta ingurumenaren babesaren arlokoak ..... 20
38.2.2.- Kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileei buruzko betebeharrak ..... 21
38.2.3.- Subrogazio kasuetako betebeharrak ..... 21
38.2.4.- Bete beharreko hizkuntza betebeharrak ..... 22
38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko betebeharrak ..... 22
38.2.6.- Betebeharrak azpikontratazioan ..... 23
38.2.7.- Laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak ..... 24
38.2.8.- Enpresa kontratistaren langileei buruzko betebeharrak ..... 26
38.3.- Informazioaren segurtasunaren esparruko betebeharrak ..... 27
38.4.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak ..... 28
38.5.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak ..... 29
38.6.- Lan programa ..... 29
39.- Obra proiektuak prestatzeko kontratuari buruzko berezitasunak ..... 29
39.1.- Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea ..... 29
39.2.- Kalte-ordainak obrak egikaritzean izandako desbideratzeengatik eta proiektuko akatsen edo errakuntzen erantzukizuna ..... 29
40.- Zerbitzu kontratuen berezitasunak, herritarrentzat zuzeneko prestazioak dakartzatenean 30
41.- Jabetza intelektualaren eskubideak ..... 30
42.- Berandutze zigorrak eta beste zigor batzuk ..... 30
43.- Kontratuaren aldaketak ..... 31
43.1.- Aurreikusitako aldaketak ..... 32
43.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak ..... 32
43.3.- Aldaketaren araubidea ..... 32
44.- Kontratistari egin beharreko abonuak ..... 32
45.- Kontratua etetea ..... 33
46.- Harrera eta berme epea ..... 33

46.1.- Harrera eta likidazioa ........ 33
46.2.- Berme epea ........ 33
46.3.- Bermea itzultzea ........ 33
47.- Kontratua suntsiaraztea ........ 34
**I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK ........ 35**
**I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK ........ 36**
**II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA EKAB BETETZEKO JARRAIBIDEAK ........ 38**
**III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA ........ 40**
**IV. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA ........ 42**
**V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA ........ 44**
**VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATU AURKEZTUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIRAKO EREDUA ........ 45**
**VII. ERANSKINA.- ABAL EREDUA ........ 46**
**VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA ........ 47**

# I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

## 1.- Kontratuaren objektua

1.- Kontratuaren objektua ezaugarrien taulako **3. atalean** deskribatutako zerbitzua da, betiere ezaugarrien taulan ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) aurreikusten dituen balizkoetan tramita daitezen aldaketak.

Atal horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, SPKLren 99. artikuluak dioenarekin bat. Klausula agiri honetan kontratuari edo enpresa adjudikaziodunari egindako erreferentzia guztiak, kontratuaren objektua zatitu deneko sorta bakoitzari egindakoak direla ulertuko da.

2.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. atalean** dago jasota.

## 2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premiak

Kontratu honekin beteko dira preskripzio teknikoen agirian deskribatuta dauden premia edo beharrak, zehazki bertan deskribatzen diren horniduren bitartez.

## 3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, ezaugarrien taulako **4. atalean** maximotzat adierazten dena da, balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik eta SPKLren 100.2 artikuluak zehaztutakoaren arabera kalkulatuko da.

## 4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **5. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion adjudikazio prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko, bai eta pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio estimatu horretan sartuko dira, horrela aurreikusiz gero, ezaugarrien taulako **22. atalean** hurrenez hurren, adierazitako balizko kontratuzko goranzko aldaketak.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

## 5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa adjudikaziotik ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan sartutzat joko dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak, bai eta klausula-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak adjudikaziodunari dakarzkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazten da kontratuaren prezioa zehazteko erabili den sistema.

3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuetan, kontratuaren prezioa enpresa adjudikaziodunak eskainiko du kontratuaren prezioa eta hura inoiz ez da lizitazio aurrekontutik gorakoa izango.

4.- Prezioaren zehaztapena prestazioko osagai edo unitateen prezio unitarioen bitartez egiten den kontratuetan:

a) Objektua osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen denean, adjudikaziodunak eskainitako prezio unitarioa unitate kopuruaz biderkaturik ateratzen den emaitza izango da prezioa.

b) Objektua osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:

   1) Unitate bakoitzaren prezioa adjudikaziodunak eskainia izango da.

   2) Kontratuaren gehienezko mugako aurrekontua finkatuko da, nahiz aurrekontu horretako gastu efektiboa entitate kontratatzailearen behar errealek baldintzatuta egongo den; izan ere, entitate kontratatzaileak ez du obligaziorik izango ez unitate kopuru jakin bat eskatzeko, ezta aurrekontua osorik gastatzeko ere.

5.- Ezaugarrien taulako **4. atalean** horrela adieraziz gero, lizitazioko oinarrizko aurrekontuan jasotzen diren prezio unitario partzialekiko igoera portzentaje bat duten prezio unitario partzialak barneratzen dituzten eskaintza ekonomikoak onartuko dira; dena den, ateratzen den gehienezko prezioak ezingo du, inoiz, oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditu.

## 6.- Kontratuaren finantziazioa/urtealdiak

Kontratua ezaugarrien taulako **7. atalean** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat etorriz finantzatuko da.

## 7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua

1.- Zerbitzua betetzeko epea ezaugarrien taulako **8. atalean** ageri dena da, edo, bestela, enpresa adjudikaziodunak eskaintzen duena, eskaintzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta ezaugarrien taulako **9. atalean** horrela jasota badago. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat SPKLren 29. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Zerbitzuak toki jakin batean eman behar badira, ezaugarrien taulako **11. atalean** hala adieraziko da.

## 8.- Prezio berrikuspena

1.- Bidezko bada, berrikuspena horrela adieraziko da ezaugarrien taulako **13. atalean** formula aplikagarria jasoko baitu.

2.- Prezio berrikuspena SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan berrikusiko da.

## 9.- Kontratuaren publizitatea

1.- Kontratuak adjudikatzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean, kontratua lizitatzeko deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio klausula partikularren agiriekin, eta, hala badagokio, dokumentazio osagarriarekin batera.

3.- SPKLren 63. artikuluan jasotakoaren arabera kontratatzailearen profilean kontratu honi buruz argitaratuko den informazioa ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

4.- Kontratuak arau harmonizatupean daudenean, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluari jarraikiz.

## 10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan

Organismo hauetan lortu ahal izango da honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua, eta gainerako zerga administrazioetan.
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde organismo autonomoa.
- Hizkuntza berdintasuna: Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. IHOBE SA (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa).
- Datu pertsonalak babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

## 11.- Kontratuaren araubide juridikoa

1.- Zerbitzu kontratu honek izaera juridiko pribatua du, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 26. artikuluan jasotakoaren arabera.

2.- Aldeak espresuki lotuta gelditzen dira baldintza agiri honetara eta ezaugarri tekniko partikularren agirira. Hori horrela, baldintza agiri honek eta gainerako eranskinek kontratu izaera izango dutenez, esleipen hartzaileak sinatu egin beharko ditu, ados dagoela frogatzeko, kontratua formalizatzeko egintzan bertan.

3.- Plegu honen eta kontratuko gainerako dokumentuen artean desadostasunik balego, baldintza-agiri hau lehenetsiko da.

4.- Baldintza agirietan jasota ez dagoenerako, kontratuaren araubidea izango da:

a) Kontratuaren prestaketari eta esleipenari dagokienez: SPKL, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzeko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (817/2009 Errege Dekretua); urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak (APKLEO). Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko mailan (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legea) nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren mailan kontratazioa arautzeko ezarritako beste edozein xedapenek arautuko dute, baldin eta aplikagarri badira.
Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

b) Kontratuaren ondorioei eta azkentzeari dagokienez: zuzenbide pribatuko arauak; SPKLren 319. artikuluaren lehen paragrafoan ingurumen, gizarte edo lan arloan exekuzio baldintza bereziei, kontratuaren aldaketari, lagapen eta azpikontratazioari eta kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruz jasotako arauak; eta aplikagarria izango da kontratua suntsitzeko arrazoia, zerbitzu prestazioa hasieran adostutakoaren arabera exekutatzeko ezintasunari dagokionez, kontratua ezin denean aldatu SPKLren 204. eta 205. artikuluen arabera.

5.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.

## 12.- Errekurtso araubidea

1.- Administrazioarekiko auzien arloari dagokio kontratuaren prestaketaren, esleipenaren eta aldaketen inguruan sortzen diren gatazken berri izatea, haiek inpugnatzeko oinarria SPKLren 204. eta 205. artikuluak ez betetzea denean, baldin eta ulertzen bada aldaketa horiek zirela-eta beste esleipen berri bat sustatu behar zela.

2.- Eskumena jurisdikzio zibilak izango du, kontratuaren ondorioei eta azkentzeari dagokienez sortzen diren gatazken berri izateko.

3.- Baldintza-agiri honen eta ezaugarri teknikoen agiriaren kontra hautazko errekurtsoa jarri ahal izango da, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako kontratazio-arloko errekurtso bereziaren bitartez, 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duen kontratua baldin bada.

Jarduketa hauen aurka ere errekurtsoa jarri ahal izango da:

a) Lizitazioko iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten bestelako kontratu dokumentuak.

b) Prozeduran egindako tramiteko egintzak, baldin eta tramiteko egintza horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka zerbait erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitu ezina eragiten badute edota defendatu ezina edo eskubide edo interes legitimoentzako kalte konponezinen bat badakarte. Edonola ere, ulertuko da aurreko zertzeladak gertatzen direla kontratazio mahai edo organoaren ekintzetan, horien bitartez erabakitzen denean hautagai edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo kanpo uztea, SPKLren 149. artikulua aplikatzearen ondorioz baxuegi iritzi zaielarik kanpoan utzitako eskaintzak barne.

c) Esleipen akordioak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, ulertzen denean kasuan kasuko aldaketak esleipen berri baten xede izan behar zuela.

SPKLren 51. artikuluan xedatuarekin bat, kontratazio organoaren erregistroan, Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegiarenean, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen dituen lekuetan aurkeztu beharko da errekurtsoa, hamabost egun baliodunekoepean, SPKLren 50.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, errekurtsoaren oinarria SPKLren 39. artikuluko 2. apartatuaren c), d), e) edo f) letran adierazitako deuseztasun arrazoietako bat denean, SPKLren 50.2 artikuluan jasotako aurkezpen epeei begiratuko zaie.

Aukeran izango da, halaber, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzea Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko ekainaren 13ko 29/1998 Legean jasotakoaren arabera, betiere Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean bi hilabeteko epean.

4.- Errekurtso berezia jartzeko beharkizunak betetzen ez dituzten egintzak administrazio bidean inpugnatuko dira, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotakoaren arabera, entitate kontratatzailea atxikitutako duen edo tutoretzapean duen departamentu, organo, ente edo organismoaren titularraren aurrean.

# II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

## 13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.

Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek aukerak eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako **12. atalean** ezarritako moduan eta, betiere, preskripzio tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz, atal horretan bertan laburbiltzen baitira.

2.- Espedientearen presako tramitazioa ezaugarrien taulan zehazten denean, berekin ekarriko du lizitazio eta adjudikazio eta formalizaziorako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako erregelekin bat.

## 14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Entitate kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenek eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.

Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta adjudikatzaileari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait beharkizun betetzea adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.

2.- Aurreko atalen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruz aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua burutzen den unean mantendu egin beharko dira.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren objektu diren prestazioak egikaritzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, objektua edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, Entitate kontratatzaileak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua adjudikatzen zaion arte enpresa elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

Aldi baterako enpresa elkarte baten osaera aldatzen denean kontratua formalizatu aurretik eta ondoren, SPKLren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer inguruabar gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da

## 15.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusiarekin bat, aparteko egoera gisa, interes publikoko arrazoiak tarteko eta espedientean justifikaturik, kontratu honen kasuan behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, ezaugarrien taulako **18. atalean** ageri dena izango da berme horren zenbatekoa.

2.- Bermeen formari eta baldintzei dagokienez, SPKLren 106.3 eta 108.1 artikuluetan jasotakoa beteko da, bai eta APKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotakoa ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaileei kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie.

## 16.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak **www.contratacion.euskadi.eus** lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, ezaugarrien taulako **31. atalean** jarritako epean, kontratuaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora igortzen den egunetik.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio klausula agiri honetako **I. eranskinean** jasotakoari.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula agiri honetako 19., 20. eta 21. klausuletan adierazitako atalak, horietan adierazten baita BAT, BI eta HIRU zenbakiko artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu edukia.

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

## 17.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, entitate kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduen eskaintzak aurkezteko finkatutako mugako data baino sei egun natural lehenago, betiere informazio eskaera mugako data hura baino, gutxienez, hamabi egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako 1. atalean aurreikusten den helbide elektronikora zuzenduko da.

2.- Presazkotzat jo diren espedienteen kasuan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretiko gehienezko epe hori lau egun naturalekoa izango da, erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan.

3.- Eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

### 18.- Proposamenen edukia eta datu pertsonalen tratamendua

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (APKLEOren 80.1 artikulua).

3.- Pertsona fisikoen datuak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie entitate kontratatzaileak tratatuko dituela eskaintza aurkeztearen bidez eta kontratazioa egiteko beharrezko gainerako dokumentazioaren bidez biltzen diren datu pertsonalak, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko, eta datu pertsonalak "Kontratazio-espedientea" izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

DBEO -aren 13. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten da:

a) Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna ezaugarrien taulako 28 atalean adierazitakoa da.
b) Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango da, ezaugarrien taulako 28 atalean adierazitako helbide elektronikoan.
c) Ematen diren datu pertsonalak beharrezkoak dira kontratazio-espedienteak izapidetzeko eta kudeatzeko, entitate kontratatzailearen eskumenen esparruan.
d) Tratamenduaren bidezkoa da, beharrezkoa delako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko, eta interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko, DBEO-aren 6.1 artikuluaren arabera.
e) Ez dago aurreikusita hirugarrenei lagatzea edo jakinaraztea, salbu eta legez ezarritako betebeharrak aplikatzen badira eta tratamendu honen eremuan aplikatzekoak badira (organo fiskalizatzaileak, beste interesdun batzuk).
f) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabil daitezke, datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, bai eta eramangarritasuna eta tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen erabaki baten objektu ez izateko eskubideak ere.

g) Ematen diren datu pertsonalak behar den denboran gordeko dira, bildu ziren helburua betetzeko eta sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

## 19.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: "AURRETIKO BEHARKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA"

1.- "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan sartu egin beharko dira ondoren zerrendatzen diren dokumentuak, horiek guztiak jasotzen dituen aurkibidearekin batera.

a) **Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak,** I. eranskinaren gehigarri ereduaren arabera.

b) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).** SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, II. eranskinean jasotako jarraibideekin bat beterik, eta lizitatzaileak edo honen ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

   Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

   Kontratuaren gaia sortaka zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko beharkizunak sortatik sortara aldatzen badira, EKAB aurkeztuko da kaudimenari buruzko beharkizun berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

c) **Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio.** Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta APKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Klausula-agiri honetako III. eranskinean jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

d) Ezaugarrien taulako 15. atalean adierazten diren profil eta zehaztapenei jarraiki **pertsonak eta material aldetiko bitartekoak kontratua egikaritzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena.** Klausula agiri honetako IV. eranskinean jasotzen da eredua.

e) **Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen espresua,** bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena bera, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Inongo enpresa taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du. Klausula agiri honetako V. eranskinean jasotzen da horretarako eredua.

f) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gain inprimatuta, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datuetan konfidentzialik ez dagoela ulertuko da. Klausula agiri honetako VI. eranskinean jasotzen da eredua

g) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua, hala dagokionean** (ikusi abal eredua VII. eranskinean).

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era ditzakete behin-behineko bermeak, baina, denen artean, ezaugarrien taulako **18. atalean** eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute, eta elkartea osatzen duten guztiak izanik solidario bermean.

h) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak.** Atzerriko lizitatzaile guztiek, gainera, **edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena**, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua) aurkeztu beharko dute.

Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena, horretan adierazita, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohiz aritzen dela kontratuaren objektu diren jardueren esparruan.
- Elkarrekikotasun txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa.

2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko. Epe hori ezingo da bost egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

## 20.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: “BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

1.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** aurretik eta balio irizpide baten bitartez baloratu beharreko adjudikazio irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BI zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, “BALIO IRIZPIDE BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.

2.- Artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan joan behar duen informaziorik.

3.- Era berean, lizitatzaileak preskripzio teknikoen agirian espresuki jasotako beste edozein dokumentu aurkeztu beharko ditu, baldin eta egiaztatzen badute eskaintzan betetzen direla eskatu arren baloratuko ez diren preskripzio teknikoak. Dokumentuak BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartuko dira, baldin eta artxibo elektroniko hori aurkeztea derrigorrezkoa bada; derrigorrez aurkeztu beharrik ez badago, ordea, HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartuko dira.

## 21.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA”

1.- “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.

2.- Proposamenak egokituko egingo zaizkio **VIII. eranskinean** jasotzen den ereduari, eta ez da onartuko Entitateak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.

Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.

3.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

5.- Proposamena enpresa elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

6.- Ezaugarrien taulako **12. atalak** aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo honek aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, klausula-agiri honetako **VIII. eranskinean** ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta atal horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

## 22.- Aldaerak onartzea

1.- Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren objektuari begira eskaintzea egoki irizten dion adina aukera jaso ahal izango du, preskripzio tekniko berezien agirian finkatutako beharkizun, modalitate eta preskripzio teknikoekin batera, azken horiek ezaugarrien taulako **12. atalean** laburtzen dira. Aldaerak ezaugarrien taulako atal horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da enpresa lizitatzaileentzat haiei eskatutako oinarrizko zerbitzuari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat aurkeztea. Betiere, prestazioa betetzeko epea eta prezioa, biak, klausula agiri honen hasierako ezaugarrien taulan jasotakoaren berdinak edo txikiagoak izan behar dira eta zehatz-mehatz bat etorriko dira lizitatzaileak aurkezten duen lan egitarauan adierazitakoekin.

## 23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkeztuz gero, ulertuko da enpresa lizitatzaileak goitik behera onartzen dituela klausula agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio mahaia eta organoa baimentzen dituela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatu ditzaten.

Baldintza agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.

2.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena kendu hamabost egun naturaletan, proposamenak irekitzen direnetik aurrera, adjudikaziodunа aukeratzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan

hartu direnean, SPKLren 158.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, baxuegi iritzitako eskaintzei dagokienez SPKLren 149. artikuluak aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.

3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, lizitatzaileak ezingo du Sektore Publikoarekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat, horrelako bermerik eskatu baldin bada.

## 24.- Kontratazio mahaia

1.- Kontratazio mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskumenduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, gainera, mahaiaren osaketa eta eginkizunak garatzen dituen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz.

2.- Mahaiaren osaketa ezaugarrien taulako **30. atalean** jasota dago. Hori kontratatzailearen profilaren bitartez argitaratuko da lizitazioaren iragarkiarekin edo, bestela, beti mahaia bera eratu aurretik aipatutako profileko iragarki espezifiko batekin.

## 25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea

### 25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek BAT zenbakiko artxibo elektronikoan garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentu aurkeztuan, alde interesdunei emango die aditzera, eta gehienez hiru egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileari, hori aurkezteko bost egun naturaleko epea ematearekin batera.

2.- Interesdunei jakinarazpen elektronikoz emango zaie aditzera akatsa edo hutsa ikusi dela.

3.- Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

### 25.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (bakarrik BI zenbakiko artxibo elektronikoa dagoenean)

1.- Haien aurkezpena nahitaezkoa denean, “BALIO IRIZPIDE BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin identifikatutako BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekiko dira, horien edukia ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.

2.- Ekitaldi hori hasteko, mahaiak pronuntziamendu espresua egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko informazioa (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.

### 25.3.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira eta, oro har, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko kontratatzailearen profileko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

2.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren hasieran –BI zenbakiko artxibo elektronikorik ez dagoenean–, mahaiak berariazko pronuntziamendu egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Balio irizpide bitartez ebaluatzeko irizpiderik baden kasuan, ebaluazio horren emaitza ekitaldi honetan adieraziko da.

4.- Ondoren, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzaileek aurkeztutako HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak, “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

5.- Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

6.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondotikoa izango da beti.

### 25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko atalen arabera jardundako guztia jasota geratuko da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

## 26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea

Kontratatzailearen profilean kontratuei buruzko informazioa argitaratuko da, SPKLren xedapenak jarraituz.

## 27.- Adjudikazio irizpideak

1.- Kontratua adjudikatzeko irizpideak eta haztapena, bai oinarrizko eskaintzari eta bai aldaerei aplikatuko zaizkienak, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **19. atalean** ezarritakoak izango dira.

2.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren ezaugarri formalak (testu idatzien paperaren tamaina, marjinak, letra mota eta lerroartekoa –kontuan eduki gabe grafikoak, argazkiak, diagramak...–) betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzea eskatuko zaie, haren eduki materiala aldatzeke baina. Eduki hori aldatzeak berehala prozeduratik baztertzea ekarriko du.

Errekerimendua egin ondoren formalitatea bete gabe jarraitzen badu, proposamenak ez dira baloratuko kasuan kasuko adjudikazio irizpideari dagokionez, baina hura ez betetzeak ez du, inola ere, proposamena adjudikazio prozeduratik kanpo utziko.

3.- Ez dira, inola ere, adjudikazio prozeduratik kanpo utziko honelako proposamenak: aipatutako **19. atalean** adjudikazio irizpideei buruzko atal bakoitzerako ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen dutenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gaindituz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orrialde kopururaino.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez.

## 28.- Eskaintzak baloratzea

1.- Bere eginkizunetan aritzeko, mahaiak beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

2.- Eskatzen diren preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan utziko ditu kontratazio mahaiak.

3.- Irizpideen kasuan, balio irizpideen mendeko balorazioa dutenak haztapen osoaren % 50 baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu batzorde batek egingo du BI zenbakiko artxibo

elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek, berariaz adieraziko baita ezaugarrien taularen **19. atalean**, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko. Atal horretan adieraziko dira aditu batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak, aipatuek balorazioa egiteko izango duten epearekin eta balorazio horrek izan beharko dituen gehienezko eta gutxienezko mugekin batera.

## 29.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak aurkeztutako eskaintzei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete lizitatzaileei, edo eskaintzen erredakzioko akats material agerikoak zuzentzeko esan, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzen baldintzak aldatzeko inolako aukerarik eman gabe. Jardundako guztia dokumentu bidez adierazita utzi beharko da espedientean.

## 30.- Balio nabarmenki baxuegiak dituzten eskaintzak

1.- Parametro objektiboak finkatuko ditu kontratazio organoak ezaugarrien taulako **19. atalean**, proposamen bati baxuegi irizten zaiola-eta betetzerik izango ez dela ulertzeko.

2.- Formulak aplikatuz, automatikoki baloratu beharreko eskaintzak jasotzen dituzten artxibategi elektronikoak ireki ondoren, anormalki baxuak izan daitezkeen eskaintzak identifikatzeko agiri honetan zehaztutako parametro objektiboak aplikatuko dira. Anormaltasun presuntziopean egon litekeen proposamen bat identifikatzen denean, kontratazio mahaiak –edo, bestela, kontratazio organoak– lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza ez-ohiko edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak arrazoi eta zehatz justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLren 149. artikuluko 4.etik 6.era bitarteko ataletan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

3. Kontratazio-organoak, enpresa lizitatzaileak egindako justifikazioa eta, hala badagokio, eskatutako txostenak kontuan hartuta, uste badu bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua eta, beraz, eskaintza ezin dela bete balio anormalak sartzearen ondorioz, proposamena baztertu egingo da.

## 31.- Prozedurako ondorengotza

1.- Bat egiteko, zatitzeko edo enpresaren ondarea edo jarduera adar bat eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua egin baino lehen, sozietate bereganatzailea, bat-egitearen emaitza dena, zatiketaren onuraduna dena edo enpresa ondarearen edo jarduera adarraren eskuratzailea izango da enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren ondorengoa prozeduran, baldin eta horretarako gaitasuna badu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimena nahiz sailkapena egiaztatzen baditu, adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio klausula partikularren agirian eskatutako baldintzak beteta.

2.- Aurreko ataleko eragiketak enpresa elkarteak egiaztatzen baditu SPKLren 69. artikuluaren esanak jarraituko dira.

## 32.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Kontratazio organoak atzera egitea

1.- Kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko edo SPKLren 152. artikuluko baldintzetan adjudikazio prozeduran atzera egiteko erabakia formalizazioaren aurretik hartu ahal izango du kontratazio organoak. Erabakia lizitatzaileei jakinarazi beharko die, eta baita Europako Batzordeari ere kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean iragarri baldin bada.

2.- Kasu bietan, hautagai egokiei edo lizitatzaileei ordaina eman beharko zaie, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **26. atalak** zehazten duen kopurukoa.

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

## 33.- Adjudikazioa

### 33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikatzeko proposamena

Behin eskaintzak baloratu ondoren, aktarekin batera dagokion balorazioa, onartutako eskaintzen sailkapena, eta kontratua adjudikatzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio mahaiak kontratazio organoari. Proposamenenean, ezaugarrien taulako 19. atalean jasotako irizpideen aplikazioz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta, beraz, hark ez du eskubiderik eskuratuko Entitate kontratatzailearen aurrean harik eta kontratua formalizatzen ez den arte.

Kontuan hartzeko irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.

### 33.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunak betetzeari buruzko justifikazio dokumentazioa aurkeztea

1.- Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote kontratua adjudikatzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkezteko. Horretarako hamar egun balioduneko epea izango du lizitatzaileak, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dokumentazioa honakoa izango da:

a) **Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten dokumentuak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa edo, hala badagokio, aldaketa eskrituraren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, baldin eta aplikagarri zaion merkataritza legeriaren arabera inskripzio betebehar hori galdagarria bada. Erregistroan inskribatuta egote hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estutuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

   Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, objektua edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Hori guztia aurkezten den dokumentazioan egiaztatu beharko da.

   Enpresa pertsona bakarrekoa denean, nortasun agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

b) **Hala dagokionean, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

   Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion organismo administratiboak konpultsatua.

   Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 90.

artikuluetan aurreikusi eta lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako 14. atalean zehaztu bitartekoak erabiliz.

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, horien kaudimena zehaztera begira metatu egingo dira elkartekide bakoitzaren ezaugarriak (APKLEOren 24.1 artikulua).

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKLren 87. eta 88. artikuluetan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak ezaugarrien taulako 14. atalean ezarritako bitartekoak erabilita.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek luzatutako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria luzatzen duen estatu kide batean establezimendua duten enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela haietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.

Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzaileak establezimendua duen estatu kideko legeriaren arabera luzatutako ziurtapen arau europarrak.

Aurreko atalean aipatutako dokumentuetan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dira.

d) **Kontratuaren objektu den prestazioa emateko enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzea.** Kontratatzeko gaitasunerako baldintzatzat legez galdagarria baldin bada, kontratu honen objektu den prestazioa emateko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

e) Aurkeztu beharko du **giza baliabideak eta bitarteko materialak egiaz badituela egiaztatzen duen dokumentazioa**, ezaugarri taulako 15. atalean jasotako profilak eta zehaztapenak betez.

f) **Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatzeko** (SPKLren 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua egikaritzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.

   Lizitatzaileak, kontratua egikaritzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu direla eta horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere Entitate kontratatzaileak baimenduta.

g) **Ingurumen kudeaketako arauak eta kalitate bermearen ingurukoak** betetzea. Ezaugarrien taulako 14. atalean horrela aurreikusten bada, han adierazten diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak.

h) **Zerga betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak.** Kontratazio organoaren unitate kudeatzaileek, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako plataformen bidez, enpresa lizitatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak eskatuko dituzte.

   Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio-mahaiak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du

i) **Berdintasun plan bat baduela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 50 langile edo gehiagoko enpresa denean.

j) **Langile desgaituen kopuruari buruzko frogagiriak.** 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren beharrean har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, zein horren garapenerako araudiak, aurreikusten dutenarekin bat.

k) **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren mendeko jarduerak egiten direnean:** urteko ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala dagokionean, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

   Baldin eta enpresa lizitatzaileek berariazko baimena eman badute entitate kontratatzaile honek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko datuak eskuratzeko, kontratazio-organoaren unitate kudeatzaileek, eskura dauden datu-bitartekaritzako plataformen bidez, kasuan kasuko Ogasunek eman beharreko ziurtagiriak eskatuko dituzte.

   Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio-mahaiak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

l) **Behin betiko bermea eratzea**, kasuan-kasuan dagokiona (ikusi eredua **VII. eranskinean**).

2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema baten moduan edo aurre kalifikazio sistema baten moduan, eta organo horiek haietan doan sartu daitezkeenean, enpresak ez du aurkeztu beharko toki horietan inskribatutako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak edo bestelako froga dokumentala. Izan ere, lizitatzaileak bakarrik adierazi beharko du, espresuki, dena delako erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela.

3.- Aurreko bi ataletako dokumentazio guztia eta ezarritako epearen barnean behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor kontzeptuan; diru kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio (SPKLren 150.2 artikulua).

4.- Klausula honetan adierazia emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileari, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusiaren arabera.

## 33.3.- Behin betiko bermea

1.- SPKLren 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Bermea lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren % 5 izango da edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarena, kontratua unitateko prezioen arabera formulatzen denean, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita. Berme horren eraketa hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluan aipatutako errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.

2.- Ezaugarrien taulako **18. atalean** jasotzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta APKLEOren 55. artikulu eta hurrengoetan aurreikusten den moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eskakizun hori adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, Entitate kontratatzaileak ez du haren aldeko adjudikaziorik egingo.

3.- Ezaugarrien taulako atal horretan hala aurreikusten bada, prezioa atxikiz eratu ahal izango da.

Prezioa atxikiz eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aurrez berariaz emandako baimenarekin, eta horren kopurua lehen fakturatik eta hurrengoetatik kentzen joango zaio, harik eta kopurua osatzen den arte.

4.- Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzatzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzatzen direnetik hamabost egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

5.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean, hain zuzen prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuez erantzuteko erabiliko da. Kontzeptu horien barruan sartuta dago kontratistak ez betetzea kontratuari lotutako prestazioak oker betetzearen ondorioz hirugarrengoei eraginkako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa, SPKLren 196. artikuluan jasota dagoena.

7.- Behin-behineko bermea eratzen denean, adjudikaziodunak aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatzea edo azken hori berriro eratzea.

8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako **18. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.

## 33.4.- Adjudikazioa

1.- Kontratazio organoak kontratua adjudikatu beharko du **33.2 klausulak** aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan.

Dena den, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, adjudikazioa egiteko epea, gehienez ere, hamabost egunekoa izango da, proposamenak irekitzeko egunaren ondorengotik kontatzen hasita

Ezingo da utzi adjudikatu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintza agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazioaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuta egon beharko da hamabost eguneko epean.

3.- Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei aplikatuko beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da adjudikazio ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da

4.- Aurreko 2. atalak aipatzen dituen jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute, eta bereziki SPKLren 151.2 artikuluak galdatua, hain zuzen adjudikazio prozeduran

interesa duten pertsonek behar beste oinarritutako errekurtsoak jarri ahal izan ditzaten adjudikazio erabakiaren kontra.

5.- Adjudikazioaren motibazioan 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun salbuespena aplikatu beharko da.

6.- Edonola ere, kontratua zer epetan formalizatu behar den adieraziko da bai jakinarazpenean bai kontratatzailearen profilean, SPKLren 153. artikuluak xedatzen duenarekin bat.

## 34.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua dokumentu kontraktualean formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango ditu eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da inola ere sartu adjudikazio irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

2.- Kontratua formalizatzen denean burutuko da eta, horrenbestez, ezin izango da inolaz ere kontratua egikaritzen hasi, aurrez formalizatu bitartean, hau da, alderdiek adostasuna eman gabe. Alderdien sinadura elektronikoak data desberdinetan egin badira, kontratua azken datan burutu dela ulertuko da.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikazioduna ordezkatzen duen pertsonak honakoak aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:

a) Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten dokumentuak.

b) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK eta ahalorde nahikoa duen ordezkariaren izendapena.

c) Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, adjudikaziodunak kontratuan berretsi egin beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten zertzeladak indarrean daudela.

4.- Kontratua kontratazio arloko errekurtso berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio organoak, aurreko lerrokadan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere bost egun naturaleko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita. Berdin jokatuko du, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

5.- Bestelako kasuetan, kontratuaren formalizaziorako gehienezko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.- Kontratuaren edukian espresuki jaso beharko dira adjudikaziodunak proposamen teknikoan, eta alderdi sozialen eta ingurumenekoen gaineko adjudikazio irizpidetzat baloratutako alderdiei dagokienez, bere gain hartutako obligazioak, hain zuzen ere urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauak, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoak, 11.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

7.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor kontzeptuan; kopuru hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan. Horretaz gain, kontratatzeko galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

8.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Entitate kontratatzaileari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.

9.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA

### 35.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio organoak, kontratua adjudikatzeko ebazpenean, kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki egikarituko dela ziurtatzearren.

Era berean, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesional edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira eta, hori une horretan ezinezkoa bada, ondorengo ebazpen batean.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduraduna eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren objektu den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, segurtasun eta osasun koordinatzaile izendatzen den pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren objektu diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu horietatik at, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, berariaz eta xehetasunez espedientean zehaztuta; espediente hori kontratazio organoak berretsi beharko du aurretik.

Era berean, egoki deritzoten informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, bai eta kontratuaren objektua behar bezala betetzeko eta betetze horretako edozein gorabehera konpontzeko, beharrezko bilerak sustatu eta deitu ere.

3.- Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibideak.

Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratua betetzeko lanak kontratuan bertan jasotako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen ari direla egiaztatzea. Eginkizun horrek ahalbidetuko du beharrezko ekintzak egitea, jarduera horrek kontratuaren kalitate eskakizunak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen ote dituen egiaztatzearren.

b) Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motatako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala egikaritzea bermatzeko bestelako neurriak hartzeko edo entitate kontratatzaileari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatiko ordaina emateko prozedura abia dadin proposatzea.

c) Kontratuan beharrezko den aldaketa oro gomendatzea, esaterako zehaztapen, jarraibide edo jardun eraginkorragoak eman ditzaketen beste beharkizun batzuen kasuan.

d) Kontratuari atxikitako giza baliabide eta baliabide materialen aldaketak baimentzea, betiere kontratazio organoak emandako jarraibideen ildotik, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.

e) Luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena ematea eta horiek motibatzea.

f) Enpresa kontratistak azpi kontratistekin dituen ordainketa obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.

4.- Kontratua egikaritu bitartean kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, aldatzen badira, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

## 36.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresak edo enpresen jarduera adarrak batzen, zatitzen, jartzen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua adjudikatzen zaion entitatearekin, hori subrogatu egingo baita kontratuari dagozkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa elkartea denean, SPKLren 69.9 artikuluan jasotakoa beteko da.

2.- Kontratistaren betebeharra da Entitate kontratatzaileari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

## 37.- Kontratua besteri lagatzea

1.- Kontratuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa adjudikaziodunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, beharkizun hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.
b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betea izatea.
c) Enpresa lagapen hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren betetze fasearen arabera galda daitekeen kaudimena izatea, eta hari ez dio eragin behar kontratatzeko inolako debekuk.
d) Enpresa adjudikaziodunaren eta enpresa lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

## 38.- Enpresa kontratistaren egikaritze baldintzak eta betebeharrak

### 38.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua betetzeko zehatz-mehatz segituko dira klausula agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian jasotako klausulak, eta interpretatzeko unean jarraitu egin beharko dira kontratuaren arduradunak kontratistari emandako jarraibideak.

2.- Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da zerbitzuari lotutako prestazioen kalitatea, bai eta kontratua betetzerakoan Entitate kontratatzailearentzat edo hirugarren pertsonentzat huts, akats, metodo desegoki edo ondorio okerretatik sortzen diren ondorioak ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin beharko du zerbitzua, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.

4.- Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa adjudikaziodunak aseguru kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, baldin

eta ezaugarri taularen **24. atalean** hala jasotzen bada, aipatutako estaldurak ziurtatu eta han zehaztutako aseguru osagarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.

5.- Entitate kontratatzaileak zehaztuko du kontratistaren prestazioa hori egikaritu eta betetzeko jarritako baldintzetara egokitzen ote den, eta, hari eskatuko dio, hala badagokio, kontratupeko prestazioak egin ditzala eta haiek jasotzean hautemandako akatsak konpondu ditzala. Baldin eta egindako lanak ez badira egokitzen kontratupeko prestaziora, kontratistari egoztekoak diren akats edo hutsen ondorioz, prestazioari uko egin ahal izango dio, eta salbuetsita geldituko da hari ordaintzeko betebeharretik edo, hala badagokio, eskubidea izango du hari ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitazio, adjudikatze eta betetze prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.

## 38.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

1.- Kontratua egikaritze baldintza berezi guztiak baldintza berdinetan betetzea eskatuko zaie hura egikaritzean parte hartuko duten azpikontratista guztiei.

2.- Ezaugarrien taulako **20. atalean** aurreikusitakoez gain, egikaritzeko betebehar bereziak dira jarraian adierazten direnak:

### 38.2.1.- Lan eta gizarte arloko betebeharrak eta ingurumenaren babesaren arlokoak

1.- Kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun nahiz osasun eta ingurumenaren babes arloetako lege, erregelamendu eta hitzarmen xedapen guztiak bete behar ditu, baita klausula agiri hauetan xedatutakoak ere.

2.- Kontratistak kontratua egikarituko duten langileei aplikatuko dizkien lan baldintzak izango dira enpresa kontratistaren jarduera kokatuta dagoen sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

3.- Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu hitzarmen kolektibo aplikagarria kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amai daitekeen, lan hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Obligazio hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zegoen orduko soldata mantentzen bada. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratistak egoera hori egiaztatzeko behar den informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari.

4.- Kontratistak zehaztu beharko du kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Horretarako, kontratua adjudikatu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

5.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia, aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

6.- Azpikontratazioriк egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.2.- Kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileei buruzko betebeharrak**

1.- Adjudikaziodun gisa proposatutako enpresak aurkeztu behar du, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua egikaritzera bideratutako langileen zerrenda, eta, aldi berean, egiaztatu beharko du haiek Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

Horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, data horretan kontratua egikaritzen arituko diren langileak kontratupean ez izanari buruz eta haiek kontratatzen dituenean haien guztien afiliazio eta alta egiaztatzeko konpromisoari buruz, hori guztia kontratupeko jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak kontratuaren objetuari atxikituko dizkion langile berriak kontratatzen dituenean, behartuta egongo da entitate kontratatzaileari informazio eta dokumentazio hau ematera:

- Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.
- Kontratuen modalitatea, objektua, kategoria edo talde profesionala eta lansaioa.
- Urteko soldata gordina (ordainsarien kontzeptuen arabera xehatuta).
- Hala badagokio, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Behar denean, lan horretarako gaitzen duen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa kontratistak kontratuaren arduradunari bidaliko dio, hilero, kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridiko guztien zerrenda, bai eta langileen soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketaren egiaztagiriak ere.

4.- Kontratuaren baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko, kontratazio organoak beharrezko informazio pertsonal egokia bakarrik eskuratu ahal izango du, gehiegizkoa izan gabe eta datuen kalitate printzipiora egokituta, betiere datu babesaren legerian jasotako printzipioak betez.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.3.- Subrogazio kasuetako betebeharrak**

1.- SPKLren 130. artikuluan jasotako informazio betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taulako 25. atalean informatzen da subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzez, enpresa lizitatzaileek beraiei kontratua adjudikatuz gero benetako lan kostuen ebaluazio egokia egin dezaten.

Informazio hau ematen da: subrogazioari lotutako langileen zerrenda, aplikaziozko hitzarmen kolektiboa, lan kategoria, kontratu mota, antzinatasun data, lansaioa, kontrataren mugaeguna, langile bakoitzaren soldata gordina, subrogazioari lotutako langileei aplikagarri zaizkien itunak eta, derrigorrezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Enpresa berriari kontratua adjudikatuta, baina kontratua betetzen hasi aurretik, zerbitzuaren prestazioa uzten duen enpresak enpresa berriari ziurtapen bat emango dio, non agertu behar diren langileen izenak, jaiotegunak, mota guztietako ordainsari guztiak (ordainsarien kontzeptuaren arabera xehatuta), antzinatasuna, kontratuen modalitatea, kontratuan aurreikusitako mugaeguna, lansaioa, kategoria edo talde profesionala eta indarrean dauden itun

aplikagarri guztiak, bai eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtapena (Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egoteari buruzkoa) eta ordaindu behar dituen zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak ere. Era berean, adjudikaziodun berriaren eskura jarriko ditu hark hura guztia egiazkoa dela egiaztatzeko egoki deritzen agiriak.

Enpresan langileen ordezkariak daudenean, ziurtapenarekin batera, ordezkari horien ziurtapena aurkeztu beharko du, gutxienez aurreko paragrafoan jasotako datuei buruz.

3.- Baldin eta subrogazioa gertatu ondoren lan kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio organoari emandako informazioaren arabera dauden kostuak baino, kontratista berriak zuzenean aurreko kontratistaren aurka egin dezake.

4.- Prestazioa uzten duen kontratistak erantzungo du subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabe utzitako soldatez eta Gizarte Segurantzako kotizazioez, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak kontratista berriak subrogatuak izan, inola ere betebehar hori azken kontratista horri egotzi gabe (salbu eta subrogazioa Langileen Estatutuko 44. artikulua aplikatuta gertatu bada). Horretarako, entitate kontratatzaileak atxiki egingo ditu, behin soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatuta, kontratistari zor zaizkion kopuruak, soldata horien ordainketa bermatze aldera, eta, gainera, ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldaten ordainketa egiaztatu arte.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.4.- Bete beharreko hizkuntza betebeharrak**

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutual 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean erregulatua.

2.- Ezaugarrien taulan bestelakorik adierazten ez bada, enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialetan entregatuko ditu kontratuaren objektua osatzen duten azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak, software ezberdinen testu eta soinu interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduera guztien (errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, abisu eta komunikazioetan) planteamendua bi hizkuntzetan egin beharko da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, dagokion jarduera egiteko orduan, eta jarduera hori zuzendutako herritarren segmentua kontuan hartuta, euskarari lehentasuna ematea komeni dela ikusten den kasuetan izan ezik; eta beti ere, herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea errespetatuz.

4.- Euskararen erabilpena bermatuko da errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, abisu eta komunikazioetan, eta, oro har, solaskidetzan.

5.- Kontratuak egikaritzeko orduan, hirugarrengoekin edo oro har herritarrekin harremanik eduki behar bada, kontratua egikaritzeko ardura duen enpresaren eta kontratua dela eta harremanak eduki beharreko hirugarren pertsonen arteko idatzizko eta ahozko komunikazioa egiteko orduan, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak kasu bakoitzean hautatutako hizkuntza erabiliko da. Lehenetsitako aukerarik aipatzen ez bada, adjudikazioa egiteko ardura duen enpresak pertsona fisiko zein juridikoei bidaltzen dizkien jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dira. Horrek ez du eragozten, edozein unetan, herritarrak nahiago duen hizkuntza hautatzeko eskubidea erabiltzea, eta hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzeko eskatzea.

**38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko betebeharrak**

1.- Enpresa adjudikaziodunak, kontratua egikaritzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen

familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

**38.2.6.- Betebeharrak azpikontratazioan**

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, beharkizun hauek bete behar dira:

a) Adjudikaziodunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa, zerbitzuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistak nortzuk diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua egikaritzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Sektore Publikoarekin kontratatzeko debeku egoeran ez daudela ere.

   Azpikontratistak SPKLren 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpi kontratistak sinatutako erantzukizunezko aitorpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

   Azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan zehaztutakoarekin, bai eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, edo eskaintzan adierazitako profil profesionalaren araberakoak ez direlako, ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta gaitasunari nahiz kaudimenari buruzko egiaztagiriak aurkezten direnetik hogei egun natural igaro arte, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta entitate kontratatzaileak ez badu, epe horren barne, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, eskaintzan, lanbide profila deskribatuz identifikatu badira azpi kontratistak.

b) Hogei egun naturaleko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunpean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c) Isilpeko kontratuetan edo izaera erreserbatukoetan, edo segurtasun neurri bereziez babestuta egikaritu beharrekoetan, lege nahiz araudien arabera, edo entitate kontratatzailearen segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio organoaren baimen espresua beharko da beti.

2.- Ezaugarrien taulako **18. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez daude behartuta. Horrenbestez, azken hori izango da kontratua egikaritzearen gaineko erantzukizun osoa hartuko duena entitate kontratatzailearen aurrean, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzea barne, bai eta datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egoteko betebeharra ere.

Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta aurreko 1. atalaren a) eta b) letretan adierazitako komunikazioen indarrez egin diren azpikontratuen berri izan entitate kontratatzaileak – edo c) letran ezarritako kasuan emandako baimena izanda ere.

4.- Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat egikaritzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo SKPLren 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkaritzari, lan legerian xedatutakoaren arabera.

6.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak azpikontratua jasoko duen dokumentua aurkeztu beharko dio kontratazio organoari. Dokumentu horretan, enpresa edo entitate azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulei dagokionez dituen betebehar eta horiek ez betetzearen ondorioak ezarri beharko dira.

7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionean, SPKLren 216. artikulua bete beharko da, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketetako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituena, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ere.

8.- Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz bete dituen egiaztatu ahal izango du entitate kontratatzaileak.

Horretarako, Entitateak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpi kontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio kontratistak, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea egikaritzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio edo hornidura baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean.

Halaber, Entitateari frogagiri bat aurkeztuko dio, horrek hala eskatuz gero, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako ordainketa epeak bete direla adierazten duena.

**38.2.7.- Laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak**

1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratu honen objektuari lotuta dauden langileen osotasunarentzat eta osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

3.- Zerbitzu kontratuaren objektuaren izaera dela eta, kontratistaren langileek entitate kontratatzailearen zentroetan zerbitzuren bat emateko esku hartu behar badute (edo, azpi kontratistarenek, halakorik badago), eta lantoki horietan Entitate kontratatzailearen langile propioek ere lan egiten badute, esku-hartzeari ekin baino lehen, horretan lan egingo duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jarduerek sor ditzaketen berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek jardueran parte hartzen duten beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Kasu horietan, jarduerari ekin baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez:

a) Kudeaketa prebentiboko dokumentua, baita hartu beharreko prebentzio neurriak ere.
b) Egin beharreko lanen prebentzio jardueren plangintza.
c) Jaso izanaren agiria, kontratistak sinatuta, baita azpi kontratistak sinatuta ere, halakorik badago, egiaztatzeko entitate kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuei buruzko dokumentazioa jaso dela, baita arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriei eta jarraibideei buruzkoa eta larrialdi egoeretan aplikatu beharreko neurriei buruzkoa ere.

d) Aplikatutako prebentzio antolakuntzaren modalitatea. Hirugarren prebentzio zerbitzu bat aplikatzen bada, Prebentzio Zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko da, hiru espezialitate hauekin: Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua, eta, gainera, Osasunaren Zaintza; eta prebentzio zerbitzu hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ordainagiri edo ziurtagiria.

e) kontratua egikarituko duten langileen zerrenda eta haren xedea betetzeko adjudikatuko den makineria.

f) Kontratua egikaritzeko atxikitako langileek kontratuko lanak egiteko mediku-egokitasunari buruzko egiaztagiriak.

g) Kontratua egikarituko duten langileek prebentzio esparruan jaso duten prestakuntzaren eta informazioaren frogagiria; horren barne egon beharko dira lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuen inguruan jasotako informazioa, arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriak eta jarraibideak eta larrialdi kasuetan aplikatu beharrekoak.

h) Kasu bakoitzean beharrezkoak diren babes ekipamendu indibidualen entregaren frogagiria.

i) Enpresak bere makineria edo lanerako ekipamenduak erabiltzen baditu, adostasun deklarazioa, CE markak edo 1997ko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura, langileek lan tresneria erabiltzerakoan segurtasun eta osasun arloetan errespetatu beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenera egokitzeko dokumentazioa eta horiek erabiltzeko eskuliburua. Halaber, tresna horiek erabili behar dituzten langileek horretarako berariazko prestakuntza jaso duela eta horiek erabiltzeko baimenduta daudela adierazten duen ziurtagiria.

j) Produktu kimikoen segurtasun fitxak, enpresa kontratistak edo azpi kontratistak produktu kimikorik erabili behar badu.

k) Segurtasun eta osasuneko arauak betetzen direla bermatuko duen pertsonaren izena; baita entitate kontratatzailearen langileak koordinatzeko bitartekoak ere. Horrez gain, dagozkion prebentzio baliabideak eskuragarri jartzea, baldin eta horrelakorik beharrezkoa bada.

Enpresa kontratistak beste enpresa bat azpikontratatzen badu kontratuaren objektuaren atal bat egiteko, enpresa kontratistak aurreko atalean zehaztutako egiaztapenak eskatu beharko dizkio azpi kontratistari (autonomoei), hain zuzen ere enpresa kontratistak administrazio kontratatzailearen aurrean aurkezteko.

Bereziki bermatu beharko da enpresa azpi kontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko azpiegitura eta baliabide nahikoa dituela enpresa azpikontratatuak.

Entitate kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpi kontratistek lanen arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzen dutela. Horretarako beharrezkoa den edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Zerbitzu kontratuaren objektuaren izaera dela eta, kontratistaren (edo, hala badagokio, azpi kontratistaren) langileek entitate kontratatzailearen lantokiren batean zerbitzua eman behar badute eta bertan kontratatzailearen langileek zerbitzurik ematen ez badute, ezingo da kontratuaren objektu den jarduera abian jarri, baldin eta aldez aurretik entitate kontratatzaileak jarduera hauek egin ez baditu:

- Jardueran parte hartzen duten enpresei lantokiko arriskuen berri ematea, hain zuzen ere bertan garatu beharreko jardueretan eragina izan dezaketena, baita arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ematea ere.

- Enpresa kontratistari larrialdietarako neurrien berri ematea.

Lantoki horretan, enpresa bat baino gehiagoko langileek lan egin behar badute, jarduera abian jarri baino lehen, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, enpresa eta langile autonomo guztiek elkarlanean jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jardueren berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Jarduera abian jarri baino lehen, kontratistak eta, halakorik badago, azpi kontratistak aurkeztu beharko dute entitate kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berariazko arriskuen, jarduerei eragin diezaieketen lantokiko arriskuen eta arrisku horien prebentzioko eta larrialdi kasuetarako neurrien inguruko dokumentazioa jaso izanaren agiri sinatua.

5.- Baldin eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak kontratuari atxikita dituen langileek ez badute zerbitzurik ematen entitate kontratatzailearen lantokietan, baina haren makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabiltzen baditu, jarduera hasi aurretik, Entitate kontratatzaileak enpresa kontratistari edo azpi kontratistari emango dio haren makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabili eta manipulatzeko beharrezkoa den informazioa eta, aldi berean, enpresa kontratistak edo azpi kontratistak dokumentuz frogatu beharko du, jarduera hasi aurretik, kontratua betetzen duten langileek izan badutela Entitate kontratatzaileak emandako makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabili eta manipulatzeko beharrezkoa den informazioa eta formazioa eta, gainera, hark emandako informazioa ezagutzen duela.

6.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

### 38.2.8.- Enpresa kontratistaren langileei buruzko betebeharrak

1.- Bakarrik enpresa kontratistak aukeratuko ditu baldintza agirietan jasotako titulazio eta esperientzia beharkizunak (titulazio eta esperientziari buruzko berariazko beharkizunak jarriz gero) bete eta kontratuaren egikaritzeari atxikitako lantaldean sartuko diren langileak. Halere, horrek ez du kenduko kontratazio organoak beharkizun horiek betetzen direla ziurtatzea.

2.- Enpresa kontratista saiatuko da lantaldea egonkorra izaten eta, halakorik izatekotan, haren osaeraren aldaketak puntualak eta justifikatuak izaten, zerbitzua behar bezala emate aldera (exijentzia hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Beti kontratazio organoari informatuko zaio, administrazio klausula partikularren agirian jasotakoaren arabera.

3.- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du, bere langileei dagokienez, modu egiazkoan, eraginkorrean eta jarraian enpresari guztiei dagokien zuzendaritza boterea erabiltzeko. Horregatik, bada, eginkizun hauek hartzen ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; laneko arriskuak ekiditeko lege betebeharrak betetzea; beharrezko gertatuz gero, diziplinazko zehapenak ezartzea; Gizarte Segurantzako xedapenak eta, bereziki, kotizazioak eta prestazioak ordaintzeari dagozkionak betetzea; eta, oro har, enplegatzailearen eta langileen arteko kontratu harremanetik datozen gainerako eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

4.- Enpresa kontratistak bermatuko du, batez ere, kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileek beren jarduera gauzatuko dutela beraien eginkizunen muga gainditu gabe, betiere kontuan hartuta kontratuaren objektu diren baldintza agiriek mugatutako jarduera.

5.- Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du, bere enpresako langileen artetik, koordinazio teknikoaz arduratzeko. Eginkizun hauek beteko ditu pertsona horrek:

a) Solaskidea izatea bere enpresaren eta entitate kontratatzailearen artean. Horretarako, komunikazioa bideratuko du enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen artean, batetik, eta entitate kontratatzailearekin, bestetik, betiere kontratua betetzeari lotutako alderdiei dagokienez.
b) Lan zereginak kontratua betetzeaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratupeko zerbitzuaren prestazioari dagokionez beharrezkoak diren laneko agindu eta jarraibideak ematea.
c) Lantaldeko langileek beraiei agindutako eginkizunak betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lantokira joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, behar bezala koordinatu behar dira enpresa kontratista eta entitate kontratatzailea, zerbitzuaren martxa egokia eten ez dadin.
e) Entitate kontratatzailea informatzea kontratuaren egikaritzeari atxikitako lantaldearen osaeraren aldaketen inguruan, behin-behinekoak izan edo iraunkorrak izan, 38.2.2 klausulan jasotakoaren arabera.

6.- Enpresa kontratistak bere dependentzia edo instalazioetan bete beharko du kontratua, salbu eta baldintza agirian aurreikusita badago zerbitzuak entitate kontratatzailearen dependentzietan ematea eta espresuki hala baimen bada. Kasu horretan, entitate kontratatzaileak langile publikoen languneez besteko eremuak jarriko ditu enpresa kontratistaren esku. Enpresa kontratistak zainduko du bere langileek zerbitzu horiek berari emandako kokalekuan ematen dituztela.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

## 38.3.- Informazioaren segurtasunaren esparruko betebeharrak

1.- Kontratistak eta haren zerbitzuko langileek konfidentzialtzat jo beharko dituzte entitate kontratatzaileak kontratuaren egikaritzan informazioa eskuratu dutenei emandako informazioa, datuak edo espezifikazioak, edo kontratua egikaritzean eskuratuak izan direnak. Beraz, haiek ezin izango dira, ez osorik eta ez partzialki, argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo hirugarrenei mailegatu, SPKLren 133. artikuluan jasotakoaren arabera. Betebehar horiek entitate kontratatzailearekiko harremanak amaituta ere iraungo dute.

2.- Sortutako, bildutako eta prozesatutako datuei dagokienez, enpresa kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

a) Beren eginkizunak betetzean sortutako datuak behar bezala gorde eta biltegiratu, haien osotasuna, erabilgarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.
b) Datuak entitate kontratatzailearen esku jarri, eta hark noiznahi eskuratu ahal izango ditu, hark eskatzen duenean, behar bezala eta eskatzen duen formatuan.
c) Datuen konfidentzialtasunari eutsi eta beharrezko neurriak hartu baimenik gabeko sarbidetik, galeratik, aldaketatik edo bidegabeko hedapenetik babesteko. Era berean, datuen zehaztasuna, osotasuna eta gaurkotasuna bermatuko ditu, eta akatsak eta omisioak minimizatzeko neurriak hartuko ditu.
d) Datuak ezin izango dizkio hirugarrenei transferitu entitate kontratatzailearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta ezarritako prozeduren arabera.

e) Datuen kudeaketaz arduratuko den pertsona bat izendatu. Pertsona hori harremanetarako gune izango da datuen kudeaketarekin eta gobernantzarekin lotutako edozein kudeaketa egiteko.

Atal honetan zerrendatutako klausulak kontratuaren indarraldian aplikatuko dira, eta indarrean jarraituko dute kontratua amaitu ondoren ere, entitate kontratatzaileak datuak kontserbatzeko eta erabiltzeko legezko betebeharra edo interes legitimoa duen neurrian.

Apartatu honetan jasotako klausulak exekuzio-baldintza berezitzat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak baldintza-agiri honen **42. klausulan** jasotako zigorrak ekarriko ditu.

3.- Baldin eta, ezaugarri taulako **16. atalaren** arabera, kontratua egikaritzeko beharrezkoa bada kontratistak tratamendurako arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzea:

a) Tratamendu horren helburua adieraziko da ezaugarrien taulan. Kontratistak ezingo ditu datu horiek erabili zehaztutakoak ez diren beste helburu batzuetarako. Baldin eta kontratistak beste helburu baterako erabiltzen baditu datuak, kontratuko estipulazioak edo indarrean dagoen araudia bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, bera ere tratamendurako ardura duen organotzat hartuko da eta pertsonalki egindako arau hausteez erantzungo du.

b) Kontratista bete beharko ditu estatuko eta Europar Batasuneko datu babesari buruzko araudia eta entitate kontratatzaileak ematen dizkion jarraibideak.

c) Kontratistak adierazi beharko du, kontratua formalizatu aurretik, non dauden zerbitzariak eta nondik emango diren haiekin lotutako zerbitzuak. Kontratuaren bizialdian hari dagokionez egiten den edozein aldaketa behar den garaian komunikatu beharko da.

d) Kontratistak, tratamendueragilea den aldetik, beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu beharko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek suntsitzea, galtzea edo aldatzea edo datuok baimenik gabe komunikatu edo eskuratzea saihesteko.

e) Kontratatutako zerbitzua amaitzean, kontratistak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako beste tratamendu eragile bati.

Funtsezko betebehartzat hartuko da, SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran jasotakoaren ondorioetarako, atal honen a), b) eta c) letretan adierazitakoa, bai eta lizitatzaileei beren eskaintzan, ezaugarrien taulako **17. atalaren** arabera, honako hauek adierazteko dagokien betebeharra ere: zerbitzariak edo haiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusi ote duten, zein den enpresaren izena edo profila –kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen aipamena eginez– eta zer azpikontratistari aginduko dioten kontratua egitea. d) eta e) letrak jasotako betebeharrak kontratua egikaritzeko baldintza berezitzat hartuak izango dira.

4.- Kontratuaren indarraldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du adjudikaziodunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte**.**

## 38.4.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak

1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, non eta kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez duen; eta haien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bere kontura bete behar ditu kontratistak.

2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, enpresa kontratistak ordaindu edo gordailatuko ditu.

## 38.5.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratistaren kontura dira kontratua formalizatzeko gastuak, kontratua eskritura publikora eramaten bada, eta baita kontratua betetzeko lizentzia eta baimen guztiak ere.

## 38.6.- Lan programa

1.- Entitate kontratatzaileak egoki iritziz gero preskripzio teknikoen agirian ezarriarekin bat lan programa bat eskatzeari, adjudikaziodunak programa hori aurkeztu beharko dio Entitate kontratatzaileari, honek, hautatutako aukerari buruzko dokumentuekin batera, onartu eta, hala badagokio, epe partzialak finkatu ditzan.

2.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, adjudikaziodunak gaurkotu eta egunean jarri beharko du programa hori, horretarako jasotzen dituen jarraibideen ildotik joz betiere.

## 39.- Obra proiektuak prestatzeko kontratuari buruzko berezitasunak

1.- Enpresa kontratistak ezaugarrien taulako **8. atalean** jasotako epearen barruan entregatu beharko ditu egindako lanak. Kontratuaren arduradunak azterketa bat egingo du aurkeztutako dokumentazioaren inguruan eta, preskripzio teknikoak bete direla uste badu, obrak hartzea proposatuko du.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, obra proiektuak idazteko lanari buruz, idazketa egiteko epea bukatu baino gutxienez hilabete lehenago, kontratuaren arduradunari dokumentuaren zirriborro osoa entregatu behar zaio, hark azter dezan eta, behar dituen doiketak egin ondoren editatuta, onartutako idazketa epearen barruan aurkez dadin behin betiko dokumentua.

## 39.1.- Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea

1.- Zerbitzu kontratua obra proiektu bat osorik egiteko baldin bada, egotzi ahal zaizkion okerrak, trakeskeria teknikoak, oker materialak, ez-egiteak eta erregelamendu edo lege mailako arau hausteak zuzentzeko eskatuko dio kontratazio-organoak kontratistari, eta, horretarako, ezaugarrien taulako **8. atalean** adierazi beharreko epea emango dio, gehienez ere bi hilabetekoa.

2.- Epe hori amaitu eta ez baditu oraindik okerrak zuzendu, Entitate kontratatzaileak bi aukera izango ditu, tartean diren gorabeherak kontuan harturik: kontratua suntsiaraztea edo kontratistari beste epe bat ematea SPKLren 314. artikuluan aurreikusita dagoen eran eta bertan jasotako ondorioekin.

3.- Kontratistak erreklamaziorik egiten badu kontratuaren arduradunak egindako oharrei dagokienez, arduradunak kontratazio organoari helaraziko dio erreklamazioa, txostenarekin batera, organo horrek ebatzi dezan.

4.- Kontratistak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten kontratuaren zuzendariak egindako oharrei dagokienez, haiekin ados dagoela ulertuko da eta, beraz, antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu egin behako ditu.

## 39.2.- Kalte-ordainak obrak egikaritzean izandako desbideratzeengatik eta proiektuko akatsen edo errakuntzen erantzukizuna

1. Proiektuan aurreikusitako obra egikaritzearen aurrekontua % 20tik gora desbideratzen bada, goitik nahiz behetik, obraren kostu errealetik, kontratista aholkulariari leporatu beharreko akats edo omisioengatik, proiektua egiteko kontratuaren prezioa gutxitu egingo da, kalte-ordain kontzeptupean, desbideratze portzentajearen arabera, gehienez ere prezioaren erdiraino, SPKLren 315.1 artikuluan jasotako kalte-ordainei jarraituz.

2. Aurreko atalean, aurreko klausulan eta SPKLren 233.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa jasota ere, obrak egin edo ustiatu bitartean Entitate kontratatzaileari edo beste hirugarren batzuei kalte eta galerak eragiten bazaizkie proiektuak dituen eta kontratistari egotzi ahal zaizkion akats eta hutsune teknikoengatik, edo hark egindako errakuntza material, ez-egite eta lege edo erregelamendu mailako arau hausteengatik, erantzukizuna kontratistarena izango da.

Kontratistaren erantzukizun horrengatik ordaindu beharreko kalte-ordaina eragindako kalteen % 50 izango da, baina, gehienez ere, proiektuaren prezio itunduaren halako bost. entitate kontratatzaileak proiektua jasotzen dituenetik hasi eta, gehienez ere, hurrengo hamar urteetan izango da zilegi kalte-ordain hori eskatzea, eta ez baldin bada nahikoa hirugarrenei eman beharreko kalte-ordaina ordaintzeko, falta dena entitateak jarri beharko du.

## 40.- Zerbitzu kontratuen berezitasunak, herritarrentzat zuzeneko prestazioak dakartzatenean

1.- Kontratistaren betebeharrak dira dena delako zerbitzua adostutako jarraitutasunaz ematea, eta partikularrei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatzea aurrez xedatutako baldintzetan eta, kasua bada, finkatutako prestazio ekonomikoa ordainduta; zerbitzua ondo dabilela zaintzea; zerbitzua eskaini behar horretan inori kalterik eraginez gero, kalte-ordaina ematea, non eta kaltea ez den entitate kontratatzaileari egotzi ahal zaizkion kausengatik; eta, behar den kasuetan, kontratatutako obrak eta instalazioak artapen eta funtzionamendu egoera egokian entregatzea.

2.- Kontratistak kontratua ez betetzeagatik nahasmendu larri eta beste baliabide batzuekin konpondu ezinekoa sortzen bazaio zerbitzuari, eta entitate kontratatzaileak kontratua suntsiarazteko erabakirik hartzen ez badu, nahasmendua desagertu arte zerbitzua bahitzea edo hartan esku hartzea erabaki dezake entitate kontratatzaileak. Nolanahi ere, kontratista behartuta egongo da eragindako kalte eta galerak ordaintzera Entitateari.

3.- Entitate kontratatzaileak beharrezko polizia ahalmenak izango ditu, herritarrei zuzeneko prestazioak dakarzkien zerbitzuen martxa ona ziurtatzeko.

## 41.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Baldin eta kontratuaren objektua bada jabetza intelektual edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea, hark berekin ekarriko du eskubide hori entitate kontratatzaileari lagatzea.

## 42.- Berandutze zigorrak eta beste zigor batzuk

1.- Kontratazio organoak, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, jarraian adierazten diren ez-betetzeengatik eta adierzten diren zenbatekoetan, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraituz:

a) Guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzeagatik.

b) Prestazioa gaizki betetzeagatik, ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik agiri honetan jasotako kontratua egikaritzeko beste edozein egikaritze baldintza berezi, hurrengo ataletan adierazitakoez bestelakoak direnak.

c) Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina duen zerbait ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

d) Soldatak ez ordaintzeagatik edo ordainketa behin eta berriro atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen azpitiko baldintzak aplikatzeagatik, modu larri eta dolozkoan.

e) Azpikontrataziorako obligazioak, baldintzak eta bestelako beharkizunak urratzeagatik.

f) Lan Programa eta Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, horiek eskagarri direnean.

g) Ez betetzeagatik Foru sektore publikoko kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatzen dituen urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 30.2 artikuluan jasotako obligazioak.

2.- Zigorren zenbatekoak hauek dira::

a) a) letran barneratzen den arrazoia dela medio, SPKLren 193. artikuluko 3. atalean aurreikusitako zenbatekoa, baldin eta ezaugarrien taulako **23. atalean** beste zenbait ezartzen ez badira.
b) b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.
c) e) letran jasotako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50eraino.
d) f) letran jasotako arrazoiarengatik, euro bat egunean kontratuko prezioko 5.000 euroko.
e) g) letran jasotako arrazoia oso ez-betetze larritzat hartuko da.

Zigor horiek, klausula honetako 1. ataleko a) letran aipatzen diren betebeharren urraketarako adierazitako salbuespenarekin, proportzionalak izan beharko dira ez-betetzearen larritasunarekiko eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagokoak izan, BEZa aparte, eta guztien artean ere ezingo da kontratuaren prezioaren % 50a gainditu.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, hura behar bezala egikaritzeko aurreko atalean adierazitakoez aparteko zigorrak ezartzea beharrezkotzat jotzen bada, horiek ezaugarrien taulako **23. atalean** zehaztuko dira.

4.- Enpresa kontratista berandutze egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Entitate kontratatzaileak aurretik eskaera egitea.

5.- Bitartekoak baliatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo beste edozein egikaritze baldintza berezi ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina dutenak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, harreraren unean, kontratazio organoak ikusten duenean, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, azken horrek kontratua edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat ez dituela egikaritu, betiere horiek garrantzitsuak izan badira adjudikazioari begira.

Bete ez diren konpromisoak adierazgarritzat joko dira, bete gabeko irizpidean kontratistak eskuratutako puntuazioaren % 50 deskontatu ostean, bere eskaintza ongien balioetsia ez bada.

7.- Gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, kontratistak akats horiek konpontzeko legez duen betebeharraren gorabehera.

8.- Zigorra ezartzeak ez du kalte eta galerengatiko kalte-ordaina salbuesten.

9.- Berandutzearen ondoriozko zigorren zenbatekoa faktura edo ziurtapenetatik eta, aipatu dokumentuetatik kentzea ezinezkoa denean, bermetik kenduko da. Zigor horiek bermea baliatuz ordaintzen direnean, kontratista behartuta geratuko da berme hori birjarri edo areagotzera, egikaritzen denetik hamabost egun naturaleko epean. Hala egin ezean, kontratatua eteteko nahiko arrazoi dagoela ulertuko da.

## 43.- Kontratuaren aldaketak

1.- Kontratua burutzen denean, kontratazio organoak bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango ditu bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **22. atalean**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta mugekin.

2.- Kontratuan aldaketak sartzea beharrezko suertatzen denean, kontratuaren arduradunak dagokion proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten

dokumentuekin batera. Aurreko atalean ezarritako eskumenari dagozkien erabakiak hartzeko abiarazten diren prozeduretan, kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.

3.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketarako kasuekin bat datozenak, bakarka edo elkarrekin kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZik gabe–, nahitaezkoak izango dira, betiere, kontratistarentzat, eta kontratazio organoak erabaki beharko ditu, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan eta APKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta, eta dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adieraziarekin bat, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.

4.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Entitate kontratatzaileak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Kontratistak, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.

## 43.1.- Aurreikusitako aldaketak

1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, horrela aurreikusi bada, klausula agiri honetako ezaugarrien taulako **22. atalean** zehazten denaren arabera, betiere hartan finkatutako baldintza, irismen eta mugekin, eta aldaketek hasierako prezioaren % 20tik gora egin gabe.

2.- Aldaketarako arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, jaso egin beharko dira horietako bakoitzeko ingurunabarrak, baldintzak, irismena eta mugak.

3.- Aurreikusten diren aldaketek ezingo dute, inolaz ere, kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk finkatzea eragin.

4.- Betetzeko unitateen kopurua handitu ahal izango da SPKLren 309.1 artikuluan aipatutako ehunekoraino (kontratuaren prezioaren % 10), eta ez da beharrezkoa izango aldaketa espedienterik tramitatzea ezaugarrien taulako **22. atalean** hala jasotzen denean.

## 43.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren kasu tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek mugatzen badira eragile izan duten arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketei erantzutera.

2.- SPKLren 205. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, kasu horietan kontratua aldatu aurretik entzunaldia eman beharko zaio zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari, baldi eta zerbitzu-kontratu baten bidez kontratazio-organotik kanpoko hirugarren pertsona batek prestatu baditu, komenigarritzat jotzen dituen oharrak egin ditzan, gutxienez hiru egun naturaleko epean.

## 43.3.- Aldaketaren araubidea

Bere araubideari dagokionez SPKLren 203.etik 207.era bitarteko artikuluetan eta 191. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta baita erregelamenduz xedatutakoa ere.

## 44.- Kontratistari egin beharreko abonuak

1.- Zerbitzuaren ordainketa entrega egin eta adostasunez jaso ondoren egingo da, aurrez aurkeztuta, betiere, fakturak edo dokumentu baliokideak, ziurtagiriak entrega partzialak direnean, eta harrera akta hala dagokionean. Horretarako, entrega-datatik hogeita hamar egun naturaleko epea izango du kontratistak, faktura aurkezteko.

2.- Ordainketa epea merkataritza eragiketetako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituen 15/2010 Legearen arabera ezarriko da, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duena.

3.- Edonola ere, enpresa kontratistak ez badu erregistro faktura aurkezteko duen hogeita hamar egun naturaleko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar egun natural igaro arte entitate kontratatzaileak, hala badagokio, faktura ontzat eman eta ordaindu gabe.

4.- Bestetik, emandako zerbitzua kontratuan xedatuari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu entitate kontratatzaileak, ondasunen entrega efektiboaren ondotiko hogeita hamar egun naturalen barnean.

## 45.- Kontratua etetea

Kontratua etenez gero, SPKLren 208. eta 313. artikuluetan eta APKLEOren 103. artikuluan xedatua aplikatuko da. Aldi baterako etete, etete partzial, etete oso edo behin betiko etete kasuetan, etete horren akta egingo da.

## 46.- Harrera eta berme epea

### 46.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Zerbitzua kontratuan ezarritako epearen barruan eman beharko du enpresa kontratistak, preskripzio teknikoen agirian eta administrazio klausulen agirian adierazitakoari jarraituz.

2.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela esango da, objektua oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Entitate kontratatzailearen adostasunarekin egikaritu duenean. Horretarako, kontratuaren arduradunak dokumentazioa edo prestazioa aztertuko du eta, preskripzio teknikoak eta administrazio klausulak bete direla uste badu, zerbitzuen harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren objektua amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, kontratuaren objektu diren harrera egintza formala zertuko da.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabili daitezkeen kontratuaren zatien gainean.

4.- Kontratuen egikaritzea segidako traktukoa bada, harrera kontratupeko prestazioa edo kontratuaren epea amaitzean egingo da.

### 46.2.- Berme epea

1.- Berme epea ezaugarrien taulako **18. atalean** ezarria izango da edo, bestela, adjudikaziodunak eskainia.

2.- Epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan ezkutuko akats edo okerren bat dagoela, Entitate kontratatzaileak eskubidea izango du kontratistari haiek konpontzea erreklamatzeko.

3.- Berme eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzeagatik iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Entitate kontratatzaileak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzegatik.

Kontratistak eskubidea izango du kontratupeko prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharren inguruan entzuna izateko.

4.- Berme epea entitate kontratatzaileak eragozpenik aurkeztu gabe amaitzen bada, kontratista berak emandako prestazioari lotutako erantzukizunetik salbuetsita geldituko da, obra proiektuak prestatzeko kontratuetarako berezitasunak eragotzi gabe.

### 46.3.- Bermea itzultzea

Ezaugarrien taulako **18. atalean** adierazitako berme epea igarotzen bada Entitate kontratatzaileak inolako eragozpenik adierazi gabe, emandako zerbitzuaren gaineko erantzukizun orotatik libre geratuko da kontratista, eta behin betiko bermea itzuli edo deuseztatu egingo da horrenbestez.

## 47.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsitzeko arrazoi izango da, SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain, SPKLn adierazitako funtsezko betebeharrak, 38.3 klausulan jasotzen direnak eta ezaugarrien taulako 21. atalean kontratuzko funtsezko betebehar modura adierazten direnak ez betetzea.

2.- SPKLren 211.2. artikuluarekin bat etorriz, suntsitzearen ondorioko ekonomikoekin lotuta kontratua suntsitzeko efektu ezberdinak dituzten arrazoi ugari gertatzen direnean, denboran lehentasunez agertutakoari erreparatu beharko zaio.

3.- Kontratua suntsitzea kontratazio organoak erabakiko du SPKLren 212.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, erregelamenduz ezarritako moduan izapidetutako prozedura bidez.

4.- Kontratua kontratistaren erruzko ez-betetze baten ondorioz suntsiarazten denean, bermea konfiskatu egingo zaio eta, gainera, Entitate kontratatzaileari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kalte eta galeren ondorioz. Kontratazio organoak, kontratistak ordaindu behar dituen kalte-galerak zehaztu beharko ditu. Horretarako, erabakia arrazoitu egin beharko du, kontratistari entzun ondoren. Erabakia hartzeko, besteak beste, honako faktore hauek izango dira kontuan: dakarkion atzerapena eta entitate kontratatzaileari eragin dizkion gastu handiagoak.

5.- Suntsitzeko arrazoiak aplikatzeko SPKLren 212. artikuluan xedatutakoa beteko da eta bere ondorioetarako SPKLren 213. eta 313. artikuluetan xedatutakoa, eta baita, hala badagokio, erregelamendu bidezko garapenean xedatutakoa.

6.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak halaber, honako hauek izan daitezke:

a) Kontratua egikaritu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

   Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistaren langileen ordezkaritzak eskaturik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek eragiten dien langileak SPKLren 130. artikuluarekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak direnean eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren adjudikazio prezioaren % 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak ofizioz erabaki ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

b) Klausula agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko ez-betetze oso larria gertatzea.

c) Kontratua bertan hasieran adjudikatutako langile kopuruarekin egikaritzea ezinezkoa izatea.

d) SPKLren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan jasotako arrazoiak, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetarako.

7.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) jasotako egoeraren batean, entitate kontratatzaileak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

8.- Haatik, ez-betetzeengatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5aren multiplo batera iristen direnean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsitzeko edo beste zigor batzuk ezarriz harekin jarraitzeko.

# I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

## I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. **Kontratazio prozeduretako izapideetarako lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko beharkizunak**

   **1.1. Administrazio beharkizunak:**

   a) Ziurtagiri digital bat izatea, lizitazio elektronikorako sisteman identifikazio eta sinadurarako bitarteko gisa onartuta dagoena. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko atariak momentu oro baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua erakutsiko du.
   b) Enpresak erregistro horietakoren batean alta emanda egon behar du: EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan (ROC) zein Estatukoan (ROLECE), edota, lizitatzaileen barne-erregistroan (KPE-CPE).

   **1.2. Beharkizun teknikoak:**

   Elektronikoki lizitatzeko beharkizun teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke: https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

2. **Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:**

   Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da:

   https://www.contratacion.euskadi.eus/kpecpe-licitacion_electronica-kontratazioa_eu/w32-kpelicel/eu/

**Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:**

**945 016 298**

## I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

## JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK ETA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUETARA SARTZEKO BAIMENA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

** Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

### ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua (*izena eta espediente kodea*) adjudikatzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** | **GPS2026/01** |
|---|---|

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira [1]:

**JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK**

| **Kalea, plaza, hiribidea…** | **Zk.** | **Solairua** | **Eskua** |
|---|---|---|---|
| **Udalerria** | **P.K.** | **Probintzia** | |
| **Telefono finkoa** | **Mugikorra** | | |

**Abisuetarako helbide elektronikoa:**

**Hartzailea:**

**Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza:** Euskara ☐ Gaztelania ☐

[1] *Hainbat enpresak adjudikaziodun izanez gero formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUAK [2]**

BAI ☐ / EZ ☐ (*aukera markatu*)

**BAIMENA EMATEN DIOT** Entitate kontratatzaileari prozedura honetan, bitarteko elektronikoen bidez, eska ditzan kasuan kasuko ogasunek Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruz eman beharreko ziurtagiriak.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

[2] *Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, ekonomia-jardueren gaineko zergaren datuak eskuratzeko baimen horri buruzkoa.*

# II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA EKAB BETETZEKO JARRAIBIDEAK

**1.- Lizitatzaileak EKABa aurkeztea hark lizitazio prozedura honetan parte hartu ahal izateko klausula agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BEHARKIZUNAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.**

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da Europako Kontratazio Agiri Bakarra EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB) bat.

Kontratazio organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztea eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren adjudikazioa aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa zehazki, **33.2 klausulan** aurreikusiarekin bat.

**2.- EKABen formulario normalizatua.**

EKABen formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

**3.- Jarraibideak.**

Dokumentuan adierazten diren beharkizun guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio epearen azken egunean, kontratatzeko galarazpenak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Entitate kontratatzaileak egiaztapenak egin ahal izango ditu, betiere, prozedurako edozein unetan.

Adierazpenak behar besteko ahala duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren gaia **sortatan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko beharkizunak sortatik sortara aldatzen badira, EKAB bakar bat aurkeztuko da kaudimen beharkizun berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

**Eskatzen den kaudimena edo bitarteko atxikipena kanpo bitartekoz betetzen badu lizitatzaileak**, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan lizitatzaileen adierazpena jaso beharko da, klausula agiri honetako **V. eranskineko** ereduarekin bat, enpresa talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan dagoeneko gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere zertzelada hori adierazten bada EKABen formulario normalizatuan. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu behar du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat ez

dagoenean aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota, edo horietan gaurkotuta ez badago, formularioa betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek **kontsultatu ahal izango dituzte**:

- 2016/7 zk. Erregelamendua (EB), web honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2016-3392

**4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.**

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

** Eredua egokitu behar da, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** | **GPS2026/01** |
|---|---|

## ADIERAZTEN DUTE

**1.** Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

| Enpresaren izena | % |
|---|---|
| | |

| | |
|---|---|
| | |
| | |

**2.** Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun arrunt, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |

**Tokia eta data:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

# IV. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** | **GPS2026/01** |
|---|---|

## ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

Enpresa lizitatzaileak konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldi osoan ezaugarrien taulako (gutxieneko talde teknikoa) 14.3 atalean xedatutakoaren arabera izendatutako talde teknikoari eusteko, eta ezingo da aldaketarik egin, behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik. Aldaketa horiek egin aurretik, erakunde kontratatzailearen baimena beharko da.

Gutxieneko talde teknikoa honela osatuko da:

- Unibertsitateko goi mailako ikasketak egin dituzten **hiru (3) pertsona** honako arloetako bat edo batzuetan: Artearen Historia, Biologia, Euskal Ikasketak, Fisika, Geografia eta Lurralde Antolakuntza, Geologia, Gizarte Antropologia, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Haur Hezkuntza, Historia, Ingurumen Ingeniaritza, Ingurumen Zientziak, Kultura Ondarearen Kontserbazioa eta Zaharberritzea, Lehen Hezkuntza, Pedagogia, Psikologia edo antzeko sailen batetakoak).

  Horietako bat lanen arduraduna izango da eta GPS fundazioarekin solaskide funtzioak izango ditu.

- Pertsona bat (1) goi mailako formakuntza zikloa (Ingurumen-Hezkuntza eta -Kontrola, Baso Kudeaketa eta Natura Ingurunea, Zuzendaritzarako Laguntza, Administrari Laguntzailea edo antzeko sailen batetakoak) edo, gutxienez, erdi mailako formakuntza zikloa (Natura Inguruneko eta Aisialdiko Gidari-Lanak, Zuzendaritzako Idazkaritza, Administrari Laguntzailea edo antzeko sailen batetakoak) edo parekoa burutu duena.

Publikoaren aurrean lan egiten duten langileek EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izan beharko dute, bisitariekin bi hizkuntzetan harremanetan aritu ahal izateko. Zehazki, parketxeetan jendeari arreta egiteaz arduratuko diren pertsonak, dinamizazio lanak egingo dituztenak (hezitzaileak), eta Parketxe Sarearekin solaskide izango direnak, euskaldunak izango dira. Zereginak ahozkoak zein idatzizkoak egin beharko dituztenez gero, maila egokia izan beharko dute bietan. Hori egiaztatzeko, gutxienez euskararen C1 ziurtagiria edo baliokidea aurkeztu beharko dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) arabera.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** | **GPS2026/01** |
|---|---|

## ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.
☐ EZ DAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren adjudikazioan parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

☐ BAI, kontratuaren adjudikazioan parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden enpresekin batera; enpresa horiek honako hauek dira:

| IFZ/IFK | Sozietate izena |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

* Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua: “Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATU AURKEZTUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIRAKO EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
| --- | --- |

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** | **GPS2026/01** |
| --- | --- |

## ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**: [3]

1.
2.
3.

…………………………..…

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.
2.
3.

…………………………..…

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| --- | --- |

[3] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berariaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

# VII. ERANSKINA.- ABAL EREDUA

**KREDITU ENTITATEAREN EDO ELKAR BERMATZEKO SOZIETATEAREN DATUAK**

| **Izen soziala** | | | **IFZ** | |
|---|---|---|---|---|
| **Jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:** | | | | |
| **Kalea, plaza, hiribidea…** | | **Zk.** | **Solairua** | **Eskua** |
| **Udalerria** | **P.K.** | | **Probintzia** | |

**AHALDUNA(K)**

| **Izen-abizenak** | **IFZ** |
|---|---|

Entitate kontratatzailearen aurrean honako honen abalemaile solidario moduan eratzen dira goian aipatutako entitatea eta, bere izenean eta ordezkaritzan, egintza honetan hura behartzeko ahalorde nahikoak dituzten pertsonak, dokumentu honen behealdean aipatutako ahalorde askiespenaren arabera:

**PERTSONA EDO ENTITATE ABALATUAREN DATUAK**

| **Izen-abizenak / Sozietate izena** | **IFK / NAN** |
|---|---|

**Berme mota**

- ☐ **Behin-behinekoa** (SPKLren 106. artikulua)
- ☐ **Behin betikoa** (SPKLren 107. artikulua)

**Kontratuaren objektua edo abalatuak bere gain hartutako betebeharra**

**Kontratazio organoa**

**Abalaren zenbatekoa (letraz eta zenbakiz)**

Entitate abal emaileak bere erantzukizunez aitortzen du betetzen dituela Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluak aurreikusten dituen beharkizunak. Abal hau solidarioki ematen da obligaziodun nagusiarekiko, berariaz uko eginez eskusio eskubideari, eta kontratazio organoak egin lehen errekerimenduaz ordaintzeko konpromisoaz, Sektore publikoaren kontratuei buruzko legedian, hori garatzeko arauetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan aurreikusten diren baldintzetan betiere.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta kontratazio organoak edo horren izenean jardunez legez horretarako gai denak, deuseztatzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta legedi osagarrian ezarritakoarekin bat.

**Tokia eta data:**
**Entitatearen sozietate izena:**
**Ahaldunen sinadura:**

Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

# VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

**Ingurumen hezkuntzako zerbitzua (arreta eta dinamizazioa) Aizkorri-Aratzeko natura-parkeko Arantzazu Parketxean (Oñati)** **GPS2026/01**

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez exijitzen diren baldintzak eta beharkizunak, honako prezio hau(ek) proposatzen d(it)u eta, hala badagokio, formula bidez ebaluatzeko beste elementuetarako eskaintzak ere.

**Eskaintza ekonomikoa (21 puntu)**

| | Arreta | Dinamizazioa | Eskainitako prezioa |
|---|---|---|---|
| Prezioa BEZ gabe | | | |
| BEZ % 21 (arreta) | | | |
| **GUZTIRA** (BEZ % 21 barne) | | | |

**Gutxieneko prezio finkoa**: 66.000 euro/urteko (BEZ barne)

**Lanen ardura duten langileen esperientzia** (20 puntu)

Esperientzia honela baloratuko da:

* Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan (edo antzekoetan) hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia: 8 puntu arte.

**1.- Izen-abizenak: ……………………………..**

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia …… urte.

**2.- Izen-abizenak: ……………………………..**

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia …… urte.

3.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia …… urte.

4.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (arreta) edukitako esperientzia …… urte.

* Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan (edo antzekoetan) hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia: 12 puntu arte.

1.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia …… urte

2.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia …… urte

3.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia …… urte

4.- Izen-abizenak: ……………………………..

Natura-parkeetan edo naturgune babestuetan hezkuntza jardueretan (dinamizazioa) edukitako esperientzia …… urte

Esperientzia honela baloratuko da: 0,50 puntu, gutxienez 100 ordu lan egin dituen langile eta lan-urte bakoitzeko. Pertsona bakoitzeko gehieneko puntuazioa 2 puntu izango da arretarekin lotutako esperientziarako eta 3 puntu dinamizazioarekin lotutako esperientziarako.

**<u>Ingurumen-irizpideak (5 puntu)</u>**

Zerbitzua gauzatzean hartuko diren ingurumen arloko neurriak adieraziko dira, urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 19. artikuluan aurreikusitakoen artetik. Horren arabera, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak txertatuko dira, eta gehienez 10 puntu emango dira.

Bereziki, honako neurri hauek jasotzen dituen konpromesua emtaten badute:

Baliabide naturalen kontsumoa minimizatuko da, hala nola lehengaiak, erregaiak eta ura (19a) (2.5 puntu)

BAI ☐ EZ ☐

Gipuzkoako Parketxeak
GPS FUNDAZIOA

Ahalik eta hondakin gutxien sortuko da, eta hondakin horiek berrerabili edo birziklatuko dira (19b) (2.5 puntu)

BAI ☐ EZ ☐

**Irizpide sozialak (emakumeen eta gizonen berdintasuna) (5 puntu)**

GPS Fundazioarekin solaskide izango den arduradua emakumezkoa da. (3 puntu).

BAI ☐ EZ ☐

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan gutxienez 150 orduko prestakuntza du:
(2 puntu pertsona bakoitzeko eta gehienez 4 puntu arte):

1.- Izen-abizenak: ……………………………..
2.- Izen-abizenak: ……………………………..
3.- Izen-abizenak: ……………………………..
4.- Izen-abizenak: ……………………………..

Kontratuaren objektu den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien **hitzarmen kolektiboaren adierazpena:** *(Hitzarmen Kolektiboa adierazi)*

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
|---|---|
| | |

.